



ONGIZATE gehigarria / 13



Sinadura bilketa hasi dute lurretan, kirol azpigiegituren prezioak berdintzea eskatzeko Durangoko Udalari / 5

127 pertsonaren gorpuzkiak berreskuratu dituzte Zornotzako hilerriko indusketa lanetan / 6



Mallabiko 7 Pago mendi lasterketagaz, Durangaldeko Kopa hasiko da zapatu honetan / 21



'Kantuez, kontuez... urtea bota' ikuskizuna egingo dute Mañariko Angurretan / 8



Asier Bikandi eta Andoni Larrea.

EUSKARALDI BETEAN HITANOAN TREBATZEN

Asier Bikandi eta Andoni Larrea Zornotzako hitano taldeko kideetariko bi dira. Hitanoan trebatzeko baliatuko dute Euskaraldia eta 'H' hizkidun txapa izango dute ipinita. 1.100 zornotzarrek baino gehiagok eman dute izena Euskaraldian, eta horietariko 252k agertu dute hika berba egiteko asmoa. / 2-3

www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel: 944 66 88 00

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekeotasun-egoeran dauden Pertsonentzako Arrata
- Telekomunikazio Instalazioak

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze-lan Elektronikoa
- Produktzioaren Programazioa

HASIERAKO LANBIDE HEZIKETA

- Informatika eta komunikazioak.

AURREMATRIKULA (ezinbestekoa matrikula plaza lortu ahal izateko)
Maiatzaren 5etik 23ra arte

EUSKARALDIA

BERRIZ

MAIATZAK 16

17:30 Eskulan tailerrak haur eta gazteentzat. Olakueta plazan / frontoian.

MAIATZAK 17

17:00 EUSKape euskaraldi ihesgelak. (aurretiaz izena eman behar da euskaraldiaberriz@gmail.com helbidera idatzita). Olakueta plazan / frontoian.

19:00-20:30 Euskaraldiskoa.

DURANGO

MAIATZAK 17

Egun osoan zehar
"Euskaraldiarekin bat" jai-egitaraua Alde Zaharrean, DAZTen eskutik.

MAIATZAK 17 ETA 18

17:00 Gazte eta familientzako txapelketak. Brawl Stars eta zintzilikarioaren jokoak. 12-18

urte arteko gazteentzat. Landako Eskolan.

MAIATZAK 20

19:00 Mintzodromoa: Zelan daramagu Euskaraldia? Napar Elkartean.

MAIATZAK 22

19:00 Pintxopotea. Alde Zaharrean.

ELORRIO

MAIATZAK 17

Mendi irteera Erdellagaz batera.

MAIATZAK 22

Mintzodromoa.

IURRETA

MAIATZAK 16

19:30 Disko-poteoa.

MAIATZAK 17

17:30 Dantzatzeko prest umeentzako disko-festa.

MAIATZAK 18

09:30 Mendi irteera Urkiolamendira. Andaparapen geldituko gara Urkiolara kotxez igotzeko.

MAIATZAK 22

19:30 Hitano poteoa.

MAIATZAK 23

18:00 Berba kafea. Askondoko karpan.

MAIATZAK 24

Munduko Arrozak.

MAIATZAK 25

12:30 Maiztegiko umeen dantza ikuskizuna. Ondoren, trikitilariak.

MALLABIA

MAIATZAK 17

18:30 Hika-karropoteoa. (Zaparrada elkarteak)

MAIATZAK 24

10:00 Mallabitarrok egina: XII

"Euskaraldia hitanoz egitea erronka polita da"

ASIER BIKANDI ETA ANDONI LARREA ZORNOTZAKO HITANO TALDEKO KIDEAK Euskaraldia martxan da eta Zornotzako Asier Bikandik eta Andoni Larreak hitanoan trebatzeko baliatuko dute egitasmoa. 'H' hizkidun txapa paparrean irtengo dira kalera

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Ahobizi eta Belarriprest, horiek dira Euskaraldiko rol nagusiak. Alabaina, badaude egitasmoa hitanoan trebatzeko aprobeixatu gura dutenak. Euskal Herriko hainbat batzorde eragilek eskaini dute Euskaraldia hitanoz egiteko aukera; Zornotzakoak, besteak beste. Guztira, 1.100 zornotzarrek baino gehiagok eman dute izena Euskaraldian, eta euretariko 252k hika berba egiteko asmoa agertu dute; tartean, Andoni Larreak eta Asier Bikandik. Horretarako, 'h' hizkidun txapa izango dute paparrean.

Zornotzan Euskaraldia hitanoz egin ahal izateko aukera dago, eta hantalxik parte hartuko duzue zuek. Zergaitik?

Andoni Larrea: Zornotzako hitano taldea indarra hartzen zebilen eta batzordeko kideek Euskaraldian aldaera horretan aritzea eskaini ziguten. Nahikoa zela txaparen gainean 'h' hizkidun pegatina bat ipintzea. Eta hantalxik egingo dugu. Gainera, Zornotzan zazpi bat hamaikako eratu dira eta euretariko bat hitano taldekoena izan da.

Asier Bikandi: Azken finean, hitanoz berba egiteko edo hitanoa entzuteko prest gaudela adier



Asier Bikandi eta Andoni Larrea.

"EUBARA ALA BOROARA JOAN, HITANOAK OSO ALDAERA EZBERDINAK DITU ZORNOTZAN"

'ziko dugu. 2018tik honako edizio guztietan parte hartu dugu eta honako hau izango da hitanoz arituko garen lehenengo aldia.

Beraz, hitanoz aritzeko erronka hartu duzuela esan daiteke.

A.L.: Bai. Niretzat, behintzat, erronka polita da. Batetik, ez nekielako hitanoz egiten, eta, bestetik, nire inguru hurbilean ez dudalako hitanoa praktikatzeko aukerarik izan. Aitak bai, hitanoz egiten zuen, baina nik ez dut halakorik izan lagun artean. Inbidia moduko bat sentitu izan dut beti. Hori dela eta, klaseak sortu genituen. Bestal-

de, aipatzekoa da Zornotzako bertso eskolako kideon artean hitanoz egiten dugula elkarriketen % 80.

A.B.: Nire kasuan, aitak bai, hitanoz egiten du. Bestalde, gogoan dut unibertsitateko ikaskideek, Elgoibarkoek, Plentziakoek, hitanoz egiten zutela. Aldi hartan, errugbian aritu nintzen eta Arratiako taldekideek hika egiten zutela dut gogoan. Neu ere ahalagintzen nintzen, baina ez neukan erraztasunik. Akorduan daukat, behin, Durangoko Azokara joan eta Labayruko postuan hitano-aditzen liburu eskatu nuela. Baina ez zegoen halakorik. Esango nuke Zornotzako hitanoari buruzko lehenengo liburu Rafa Ugaldek egin zuela (orain gutxira arte, Zornotzako Udaleko euskara teknikaria izan da Ugalde. Halaber, berak sortu zuen udalerrian hitanoa bultzatzeko taldea, 2022an).

Horrenbestez, Rafa Ugaldereen liburu duzue hitanoa praktikatzeko oinarri.

A.B.: Hiru bat urte daramatzagu hitano taldean, eta hor ibili gara batean eta bestean hau edo beste zelan esaten den galdetzen. Izan ere, Eubara ala Boroara joan, edo Arratiako jatorria duen herritarren batez topo egin, hitanoaren aldaerak oso ezberdinak dira Zornotzan.

Zuka edo toka/noka aritu, igartzen duzue alderik elkarriketaren ezauzarrietan?

A.L.: Hikak hurbiltasun gehiago ematen du, konfiantza gehiago.

A.B.: Batzuetan haserrea edo indarra adierazteko ere balio dezake: "hik zer hostia behar duk?", "Egon hadi isilik!", edo halakoren bat.

Hitano taldean hiru urtez ibili eta gero, igarri duzue hobekuntzarik?

A.L.: Orain hiru urte ez nekien ezertxo ere; orain, apur bat berba egiten dut. Horrenbestez, hobeto egiten dudala esango nuke. **A.B.:** Nik alabak ditut eta egundo ere ez dut haiei noka egiteko ohiturarik izan. Baina, orain, lantzean behin, konturatu barik, noka irteten zait. Hori aditzak landu izanaren eragina da. Iru-ditzen zait eskoletan hitanoa irakastea interesgarria izan daitekeela.

Hitano taldekoen bazkaria

Hiru urte dira Zornotzan hitanoa lantzeko taldeak eratu eta hainbat herritar aldaera hori indartzeko lanean hasi zela. Aurtengo ikasturtea amaitutzat eman dute eta hori behar den moduan ospatzeko, bazkaria egingo dute hilaren 24an, Euskaraldiaren azken txanpan, hain zuzen ere. Uranga jatetxean bazkalduko dute.

Zornotzako hitano taldean 20 bat herritar ibili dira hilero-hilero klase teorikoak hartzen. Horrez gainera, mintzapraktika egin izan dute kalean, tabernetan, "elkarregaz ardo pare bat hartu eta hitanoz berba eginda". Aurrerantzean ere kalean hika jarraituko dutela esan dute.

Ibilaldia. (Berbalagun)

MAIATZAK 25

13:00 Itzal(iko) Bagina ikuskizuna. Plazan, euriagaz parkeko aterpean.

14:00 Euskaraldia, amaiera ekitaldia. Ondoren, mokadua.

OTXANDIO

MAIATZAK 25

10:00 Motxotegira mendi irteera. Tontorrean Ubidetik eta Legutiotik igotako herritarrekin batuko dira, 12:00etan. Guztiek batera Euskaraldia 2025eko kanta abestuko dute.

Ondoren, Emoionk! jolasaren azken errondaren zuzenekoak, plazan.

ZALDIBAR

MAIATZAK 16

19:00 Bizikleta ibilaldia eta txirringa-poteoa. Udaletxeko Plazatik hasita.

MAIATZAK 17

12:00 Mintzodromoa Berbalagunekin batera. Udaletxeko plazan.

MAIATZAK 23

18:30 Euskara indartzeko gurasoen

dekalogoaren aurkezpena, Biak Bat eta Zalduaren eskutik.

19:00 Kantu-poteoa Berakatz taldeagaz, Zaldusolo Plazatik hasita.

MAIATZAK 25

19:00 Amaiera ekitaldia eta luntxa. Udaletxeko plazan.

ZORNOTZA

MAIATZAK 17

10:30-13:30 Familien ginkana. Zubiondo plazako karpan.

MAIATZAK 18

20:00 Zinema euskaraz, 'Faisaien irla'. Zornotza aretoan.

MAIATZAK 19

20:15 Zinema euskaraz, 'Faisaien irla'. Zornotza aretoan.

MAIATZAK 20

18:30 Belarriprestei zuzendutako bertso saioa, Onintza Enbeitagaz eta Jone Uriagaz. Zubiondo plazako karpan.

MAIATZAK 22

19:00 Gure Zirkuko kideekin solasaldia. Zelaieta parkean. Ondoren, luntxa.

MAIATZAK 23

18:00 'Abentura zirraragarria' ipuin kontalaria. Zelaieta parkean / Zubiondo plazako karpan.

MAIATZAK 24

13:30 Herrian ekimena: Leihotikan, STR...

MAIATZAK 25

17:00 Haurrentzako zinema euskaraz, 'Minecraft, film bat'. Zornotza aretoan.

Amamak erakutsitako aldaera

Andoni Larreak bere bizipen hunkigarri bat partekatu du ANBOTOk irakurleekin, 2000 eta 2001. urteen bueltan, bere amama Benita Villarreali hitanoa erakusteko eskatu zioneko. "Nik ez nekien hika berba egiten, eta erakusteko eskatu nion. 'Zelan ez dizut, ba, erakutsiko?', esan zidan amamak. 92 urte zituen, eta burua argi-argi. Zabale auzokoa zen, Bizkargipekoa. Koaderno batez bere ondoan jesarri, eta adibideak planteatzen hasi nintzaion. Amama: zelan esango nuke 'Nik sagar bat ekarri dut' hitanoz?, galdetzen nion, eta berak erantzuten zidan: 'Sagar bat ekarri joat'. Eta neskari esateko bada? 'Sagar bat ekarri jonat', berak". Eta halantxik, adibiderik adibide, Larreak hainbat apunte hartu zuen, harik eta aditz-taula eratzea lortu zuen arte, bere amamaren hitano aldaeragaz osaturiko aditz-taula.

Gerora, apunteak hartu arren, ikasitakoa nogaz landu ez zeulaka konturatu zen Larrea, eta urteak joan urteak etorri,

amamaren apunteak bere horretan geratu ziren. Baina zornotzarrak ez zuen sekula albo batera utzi hitanoa ikasteko asmoa, eta orain dela gutxira arte udaleko euskara teknikari izandako Rafa Ugaldegaz komentatu zuen herrian hitanoa lantzeko aukera. Horretarako, Larreak amamaren apunteekin osaturiko koadernoak erakutsi zion Ugalderi. "Rafak esan zidan esku arteko koadernoak altxor txiki bat zela, eta handik gutxira Zornotzan hitanoa lantzeko klase teorikoak eta praktikoak antolatzen hasi zen". Arrakasta lasterrera ailegatu zen, ikastaroan 20 zornotzarrek eman zuten izena eta. Istorio txikiak dira, baina euskalgintza eta herrigintza oinarri dutenak. Izan ere, Larreak eta bere amama Benitak hazia ipini zuten, eta Ugalde teknikariak bultzada eman zion egitasmoari. Orduetik hona, hitanoak lore politikak ditu Zornotzan, gaur arte 20 bat lagun ibili dira-eta aldaera hori lantzen.

Hika-txuletak prest Mallabian

Mallabiko Euskaraldiko kideek ere hitanoari beste bultzada bat emateko tresna prestatu dute: Hika txuletie. Hitanoaren aldaerekin osaturiko oinarritzko taula bat da, herriko esamoldeekin ondutako eskuorria. Herritarrek bertan topatuko dituzte Mallabiko hizkeraren jatorrizko esapideak: "hori don/hori dok suertie!", "Junai/Juai etxa!", "Hi haz hi alpakiñe!" edo "Bajakixenat/Bajakixat hori, baina...", besteak beste. Aditzekin ere beste horrenbeste egin dute. Eskuorria edo hika-txuleta Zaparrada elkarteak egin du. Euren sare sozialetan eta Zaparradako kanalean eskuratu daiteke.



Jarduera soziokomunitarioetan parte hartzeak komunitate bateko kide sentitzen laguntzen du.

IMQ Igurco Orueko adinekoen partaidetza komunitarioa

Adinekoek herriko jarduera soziokomunitarioetan parte hartzen dutenean, beren komunitatean integratuago sentitzen dira eta eurengan onura fisiko, sozial eta emozional argiak sortzen dira.

IMQ Igurco Orue

Pertsonak jarduera soziokomunitarioetan parte hartzen dutenean, komunitate bateko kide direla sentitzen dute, baita gizartearen komunitate horretako kide aktibo gisa aintzat hartuak direla ere, eta, partaidetzaren bidez, aukera ederra dute beste pertsona batzuekin harreman esanguratsu berriak sortzeko. Hortaz, jarduera soziokomunitarioetan parte hartuta, adinekoak integratuago sentitzen dira eta arrakastaz egiten diote aurre bakardade sentimenduen mehatxuari.

IMQ Igurco Oruen, profesional espezializatuak, esperientzia eta motibazioa dituztenak, egunero arduratzen dira adinekoen parte-hartze soziokulturala erraz-

teaz, haien presentzia eta ahotsa beti egon diren tokian, beren auzoetan, egon daitezen.

Oruek jarduera adierazgarriak egin ohi dituen eragile gertue-netako batzuk hauek dira, besteak beste: Zubiaur Musika Eskola (ekimen hauen bidez: Roxa antzerkia, Dizdira Ahots Taldea eta Gaztedi), Otamotzena Auzogunea (jarduera kultural eta ludikoen bidez), San Migel auzoko komunitatea eta Santa Ageda abesbatza eta Bertokoak Berton programaren eskutik, Korrika (dagokion kilometroaren bidez eta aniztasun funtzionala duten adinekoen partaidetzaren bidez) eta Cáritas (boluntario-tza-programa eta sentsibilizazio-ekimenak).

Amorebieta-Etxanoko Udala-ekin ere elkarlanean aritzen da, herriko jaietan, Gabonetan, marmitako-txapelketetan eta antzeko ekitaldietan parte hartzen, baita KZ Gunea Durangorekin ere, non informatika eta teknologia berriei buruzko tailerrak egiten diren. Zornotzako Kirolegia ere aipa daiteke, Aquagym eskolak ematen baitira bertan.

Aipamen berezia merezi du Lauaxeta Ikastolarenkin aspal-didanik antolatzen diren belaunaldien arteko programak, gazte eta adinekoek parte hartzen duten jardueren bitartez, zeinak bi kolektiboei onura anitzak dakartzkien.



Durangoko Zaintza Komiteak agerraldia egin zuen astelehen arratsaldean, Barrenkalean, HAZ aurrean.

"Zaintzaz arduratzeko" deia Durangoko Udalari

Durangoko Zaintza Komiteak bizitzak hobetzeko politikak "exijitu" ditu: "Geroago eta herritar gehiago dago bazterkeria egoeran, eta arreta beharrianak gorantz doaz etengabe", ohartarazi dute. Halaber, udalaren zaintza diagnostikoa kritikatu dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Zaintza Komiteak agerraldia egin du asteon, udalari bizitzak hobetzeko politikak "exijitzeko". "Zaintzen gaituen herria gura dugu eta udalak asko du egiteko horretan", kritikatu dute. Herriko zaintza zerbitzuen egoera "eskasa" dela azpimarratu dute, eta langile profesionalen lan baldintzak "oso prekarioak" direla gaineratu. Era berean, egoera hori larritzen dabilela ohartarazi dute: "Geroago eta herritar gehiago dago bazterkeria egoeran, eta arreta beharrianak gorantz doaz etengabe".

Durangoko Udala herriko zaintza beharrianak aztertze-

ko diagnostikoa egiten hasi zen iazko irailean, eta azterlan horren ondorioak jakinarazi ditu orain aste batzuk. Alabaina, ikerlan hori "ez da durangarren beharrianetara hurbildu", Zaintza Komitearen esanetan. "Datu orokorrak batu dituzte bertan, Euskal Autonomia Erkidego mailakoak gehienak; hau da, ez da herriko errealitatea islatu. Ez dakigu zein den menpekotasun egoeran dauden herrikideen egungo egoera. Ez dugu ezagutzen zeintzuk beharrian dituzten zaintza langileek", adierazi dute. Aitzitik, txostenaz haragoko errealitatea "bestelakoa" dela azaldu dute: "Joxemieli Barandiaran egoitzan, gauero,

hiru langile baino ez dira egoten 113 egoiliar zaintzeko; ez dira langileen bajak kubritzen; Astarloa egoitzako igogailua denbora luzez egoten da hondatuta; egoitzetan, langileek hamar minutu baino ez dituzte egoitzako erabiltzaileak esnatu, garbitu, altxatu, jantzi eta gosaltera eramateko".

Hori guzti hori dela eta, "beste udal batzuetan egindakoa" aztertzea eskatu diote Durangokoari. Besteak beste, "etxeko eta zaintza langileen lan baldintzak hobetzeko, kontziliazio neurriak malgutzeko eta etxerik etxeko zerbitzua publikatzeko aukerak" ipini dituzte mahai ganean.

Durangoko BiziPark aparkaleku estalia erabilgarri dago jada



Durangoko eta Foru Aldundiko ordezkariak eguazteneko inaugurazioan.

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangarrek erabilgarri dute jada BiziPark azpiegitura, bizikletentzako lehenengo aparkaleku estali eta itxia. Instalazioak 24 bizikletentzako lekua du eta Aldundiaren aplikazio bategaz erabili behar da. Interesdunek durango.bizipark.eus atarian eman beharko dute izena. Mireia Elkoroiribe alkatearen berbetan, "balio handiko azpiegitura" da, "bizikleta eguneroko garraiobide legez bultzatzen lagunduko duelako".

Napar txokoko kide bi elkarren kontra lehiatuko dira pintxotan

Txokoko Zigor Gerediagak eta Ortzi Egiak bina pintxo prestatuko dituzte. 35 lagunek erabakiko dute garailea

Ekaitz Herrera DURANGO

Ez dira sukaldari profesionalak, bakoitzak bere lan propioa du eta. Kozina zaleak dira eta euren chef dohainak erakutsiko dizkiete elkarte gastronomikoko gainerako bazkideei. Durangoko Napar txokoak pintxo lehiaketa antolatu du eta bertan lehiatuko dira etxe horretako kide bi: Zigor Gerediaga eta Ortzi Egia. Maiaztaren 22an, bina pintxo prestatu eta bertan baturikoei emango dizkiete dastatzeko. Mokadu hotza izango da bata, beroa bestea. Lehia 20:00etan hasiko da eta plaza guztiak beterik daude jada. Txokoko 35 kidek dastatuko dituzte pintxoak, eta haiek erabakiko dute bietako zein den ohorezko sukaldaria, Gerediaga ala Egia. "Azken finean, bata edo besteak irabazi, zeozer dibertigarria egitea da kontua, lagun artean une polit bat pasa-

tzeko aitzakia izatea", azaldu du Napar elkarteko kide Gaizka Mendiola. Mendiola esanetan, lehiaketak ikusmin handia sortu du: "Jolas bat da, gure arteko jolasa, baina egundoko ikusmina sortu du, sarrera guztiak 24 orduan saldu ziren eta. Jende askok kanpoan geratu behar izan du ezinbestean".

Pintxo ezezagunak

Lehiaketak honako berezitasun hau ere badu: lehiakideek ez dute aurkariak prestatuko dituen pintxo berririk. Lehiaketa egunean bertan jakingo dute horren berri, eta, horrenbestez, aurretiaz kalkulatu beharko dute mokadurik irudimentsuenak eta gustagarrienak zeintzuk izan daitezkeen. Gauza bat baino ez dago argi: jatekoaz gainera, umorea eta lagun arteko txantxak izango dituzte osagai.

Uztailean hasiko dira Durangoko merkatu plaza berrizten

"Merkatu soila" izatetik harago, azpiegitura "topaketarako eta partaidetzarako leku dinamiko" izatea gura du udalak



Proiektuaren infografia. DURANGOKO UDALA

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udala merkatu plaza berrizten hasiko da uztailean. Azpiegitura gaur egungo beharrianetara egokitu gura dute, eta, merkataritza-postuak eguneratzeaz gainera, eremu berriak sortuko dituzte "herriko gizar-

te eta kultur bizitza dinamizatzeko helburuz". Izan ere, azpiegitura "merkatu soila" baino zeozer gehiago izatea gura du udalak; "topaketarako, bizikidetzarako eta herritarren partaidetzarako lekua" izatea, hain zuzen ere.

11 eremu

Udalak 11 posturentzako eremuak atondu gura ditu: okindegia, harategia, urdaitegia, arrandegia, zero kilometro postua, ozpinetakoak eta kafeategia ipini gura dituzte, besteak beste. Udalak 298.920 euroko inbertsioa egingo du. Mireia Elkoroiribe alkatearen berbetan, "merkatu plaza birgaitzea Legegintzaldiko Planean jasotako proiektu estrategikoa da", udalak herriko garapenari begira duen "konpromisoaren erakusgarri garbia".

"Uste dugu asko daudela gure egoera berdinean"

MARTA DORDIO ESTEVEZ ETA MONTSE BARRIO ALVAREZ

Sinadura bilketa hasi dute lurretan, kirol azpiegituren prezioak berdintzea eskatzeko Durangoko Udalari. Durangon erroldatu bakoei gehiago ordainaraztea "legezkoa" ez dela diote

A.B. IURRETA

Marta eta Montse Iurretakoak dira, eta Durangoko kirolgune-ko erabiltzaileak. Iurretakoak izanda, durangarrek baino gehiago ordaintzen dute azpiegitura erabiltzeagaitik, eta Iurretako Udalak prezio diferentzia buel-tatu izan die. Aurten arte. **Gaur sinadura bilketa hasiko duzue herrian. Zer lortu gura duzue?** **Montse Barrio:** Durangon erroldatuta ez egoteagaitik bertako kiroldegia erabiltzeagaitik so-bran ordaindutako dirua berreskuratzea eta prezioak ber-dintzea. Durangon erroldatuta-koek eta erroldatu bakook tari-fa desberdinak ordaintzen ditu-gu, eta Iurretako Udalak dagoen aldea ordaindu digu orain arte. Baina aurten ez ordaintzea era-baki dute. Esan digutenez, Du-rangori dagokio hori kudeatzea. **Marta Dordio:** Iurretako Uda-la Auzitegi Gorenaren sententzia batean oinarritu da, 2023ko uz-tailaren 20koa. Ebazpenak dioe-nez, udal batek ezin du, erroldatzea arrazoituta, tarifa des-berdintasunik ezarri frontoi, igerileku eta kirol azpiegitura publikoen gaineko tasan; ezta kontserbatorio eta musika es-kola publikoen kasuan ere. Erroldatze irizpidea oinarri

hartuta, prezio desberdinak ezartzea legezkoa ez dela dio. 2024an eta aurten sobran or-daindutakoa bueltatzea gura dugu, eta azpiegitura publikoen prezioak berdintzea. **Iurretako Udalaren erantzunak harritu egin zaituzte?** **M.D.:** Askok. Iurretako Udalak bitartekari izan behar luke, baina eskuak garbitu eta dena gure esku utzi du. Legezkoa ez bada, zergaitik ez du ezer egiten? **M.B.:** Iurretako Udalak senten-tziari buruzko paper bat eman digu, baina geuk mugitu behar izan dugu. Dena dela, ez dugu baztertzen Iurretako Udalera jotzea laguntasun eske. **Zelan batuko dituzue sinadurak?** **M.D.:** Herriko taberna eta ko-mertzioetan sinatu ahalko da. **M.B.:** Uste dugu jende asko dagoela egoera berdinean. Iur-retan ez dugu udal kiroldegi eta udal igerilekurik, eta iurre-tar asko joaten dira Durangora. Sinadura asko batzea espero dugu. **Sinadurak batuta, zer egingo duzue?** **M.B.:** Durangoko Udalera era-mango ditugu. Prezio diferentzia larregizkoa dela uste dugu. **M.D.:** Inguruko herrietan ez da horrelakorik gertatzen. Ez dugu Durangoren jarrera ulertzen.



Marta Dordio eta Montse Barrio.

Aurrekontu parte hartzaileen bozketa fasea zabalik lurretan

A.B. IURRETA

Iurretako Udalak 2025eko aurre-kontu parte hartzaileen bozketa fasea zabaldu du. Azterketa tek-nikoa egin eta gero, herritarrek egindako 220 ekarpenen artean hamar hautatu ditu udalak. Iur-retarrek horien artean bi lehe-nesteko aukera dute orain. Maia-tzaren 25era arte bozkatu deza-kete. Udalak 50.000 euroko au-

rrekontua izango du botorik gehien jasotzen duten proiektu biak aurrera eramateko. HAZen eta saltokietan ipinita-ko postontzietan eman daiteke botoa. Bestela, Internetez, uda-leko webgunean prestaturiko galdetegiaren eta QR kodearen bitartez. Besteak beste, hiri-al-tzariak gehitzea, auzoetako pos-tontziak aldatzea, argiteria pu-blikoa modernizatzea, auzobideak hobetzea, kalistenia gunea sortzea eta txakurrentzako aisialdi ere-mua egokitzea proposatu dute.



CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL

ZORNOTZA

LANBIDE HEZKETA KO IKASTETXE INTEGRATUA

Aurrematrikula
maiatzaren Setik 23ra

Matrikula
uztailaren 11tik aurrera

ESKAINNTZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK
Metal Eraikuntzak
Web Aplikazioen Garapena
Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena
Mekatronika Industrial
Garraioa eta Logistika

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK
Merkataritza Jarduerak
Erizaintzako Zaintza Osagarriak
Mantentze-lan Elektromekanikoa
Soldadura eta Galdaragintza
Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

BERRIA
ZIURTAGIRI PROFESIONALA (C gradua)
Giro naturalean eta babestuan soldatzea (627 ordu)

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA
Langabeel eta landunei zuzendutako ikastaroak

946 730 251 | info@fpzornotza.eus | www.fpzornotza.eus

Fp | **ESKOLA JAURUMITIA**

127 pertsonaren gorpuzkiak berreskuratu dituzte Zornotzan

2023an Zornotzako hilerrian indusketa lanak hasi zituztenetik, 127 pertsonaren gorpuzkiak berreskuratu dituzte; oraintsu, lanen laugarren fasean, 24 gehiagorenak (21 gizonezko eta hiru emakumezko) topatu dituztela jakinarazi du Zornotzako Udalak

A. M. ZORNOTZA

2023an Zornotzako hilerrian indusketa lanekin hasi zirenetik, 127 pertsonaren gorpuzkiak berreskuratu dituzte bertan; azkenak, laugarren fasean topatu dituzten 24enak (horietako 21 gizonezkoenak dira, eta hiru emakumezkoenak). Aranzadi zientzia elkarteak zuzentzen ditu lanak, eta laugarren fase honetan hezurtegi bat eta hobi komun bat ere topatu dituztela azaldu dute. Zornotzako Udalak, ohar baten bitartez, Espainiako Gerran desagertutako senideak dituztenak Gogora Institutuagaz hartu-emanetan jartzerara gonbidatu ditu, DNA bidezko identifikazioak egiten laguntzeko. "Aurkikuntza bakoitzagaz historia isildua berreraikitzen jarraitzen dugu", azaldu dute.



Zornotzako hilerriko indusketa lanak. ZORNOTZAKO UDALA

Omenaldi domekan

Bestalde, domekan, hilak 18, 88 urte beteko dira frankistek Amorebieta eta Etxano hartu zituztenetik. Gertaturikoak oroitzeko, SAC Zornoza elkarteak berbaldua eta oroimen ekitaldia antolatu

ditu. Azken horretan, Rosa Pajuelok egingo du aurtengo lore eskaintza. Aurtun, udalerriko emakumeen kartzelako biktimengan oinarrituko dute oroimen ekitaldia, Rosa Velardenen eta

haren hamabost hilabeteko ume Rosa Pajueloren historian, hain zuzen ere. Ama-alabak Zornotzako emakumeen kartzelan egon ziren preso lehenengo, eta Saturrarangoan gero.

Futural foroa batu da Zornotzan, egun bitan

Europako Landako Berrikuntza Foroa egin dute, atzo eta gaur, Zornotzan

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Futural proiektuaren Europako Landako Berrikuntza Foroa (EU-RIF) landaguneetako berrikuntzaren arloko eragile nagusiak batu dira, Zornotzan, egun eta barikuan. Atenasko Nekazaritza Unibertsitateak koordinatuta, Europako hainbat eskualdetan egiten dabiltzan proba pilotuen berri eman dute bertan; besteak beste, gizarte, teknologia eta enpresa arloko soluzio berritzaileak elkarrengatik topatzeko. Urkiola Landa Garapenak ere parte hartu du foroan, Durangaldean egindako lanetik ikasitakoak partekatuzko. Hain zuzen ere, bertako presidente Erramun Osak eta Miren Martiarena zinegotziak berba egin zuten aurkezpen ekitaldian. Egun bitan, parte hartzaileek zazpi gai nagusi jorratu dituzte, hala nola gaitasun digitalak eta komunitatearen ahalgintza, eta lurralde mailako gobernantza parte hartzaileak.

Euskararen jatorriaz hausnartuko dute Zornotzan

Zapatuan, maiatzak 17, Euskararen Jatorriaren 19. biltzarra egingo dute Zelaia Zentroan

A. M. ZORNOTZA

Euskararen Jatorria elkarteak 19. biltzarra egingo du asteburuan Zornotzan. Ekimenak etimologia izango du ardatz. Horretarako, *Jatorriaz egunero* proiektua ipini dute martxan; horregaz lotuta, Paleohiztegia ere ipini dute martxan, eta 33 hiztegi ipini dituzte webgunean. Horrez gainera, bertaratzaren direnek 17 liburu berri ezagutzeko aukera izango dute. Bestalde, Juan Miguel Munarriren *Las frases en el yacimiento arqueológico del euskera* eta Jose Mari Ugaldearen *Toponomia euskerica en el mundo* liburuak aurkeztuko dituzte. Eta Antonio Arnaizek etruskeraren eta euskararen arteko antzekotasunei buruz berba egingo du. Biltzarra borobiltzeko, Miguel Thomsonek bideokonferentzia bat egingo du. Kontakturako, euskerarenjatorria@gmail.com helbide elektronikoa eta 663 901 248 telefono zenbakia ipini dituzte.

Minbiziaren tabuak Arriolako oholtzara bertso saio musikatuan

Izan Inurri elkarteak 'Tabuen kutxatik oholtzara' elkartasun bertso saio musikatu antolatu du Elorrioko Arriola antzokian; maiatzaren 23an izango da, 19:00etan

A. M. ELORRIO

Izan Inurri elkarteak "Tabuen kutxatik oholtzara" elkartasuneko bertso saio musikatu egingo du Arriolan, maiatzaren 23an. Elkarteak minbiziaren inguruko estereotipoak apurtzeko helburuagaz lan egiten du. Ane Labaka, Onintza Enbeita, Oihana Bartra eta Jone Uria bertsolariek eta Gari Otamendi eta Ixak Arruti musikariek parte hartuko dute, eta baita elkarte hainbat kide ere, gaiak ipinita.



Beste herri batean egindako emanaldia. IZAN INURRI

Gazteentzako udaberriko tailerrak martxan gaurtik aurrera

Gazteei zuzenduriko lau tailer antolatu dituzte Berrizen, euren artean parte hartzea bultzatzeko helburuagaz

A. M. BERRIZ

Berrizko Udalak lau tailer antolatu ditu datozen asteetarako, batez ere haurren artean parte hartzea eta sorkuntza bultzatzeko. Zikloko lehenengo tailerra gaur izango da, 17:30ean. Olakueta plazan. Bertan, poltsak zelan kustomizatu edo apaindu ikasiko dute haurrek (euria eginez gero, Olakueta frontoian egingo dute ekimena). Bestalde, maiatzaren 23an, 17:00etan, *Txorien etxetxoak* izeneko tailerra egingo dute Berrizjauregin; txorientzako zurezko etxetxo koloretsuak egingo

dituzte bertan, eta, horretarako, pintzelak eta pintura akrilikoa erabiliko dituzte. "Parte hartzaileek euren gogoko etxetxoak egin ahal izango dituzte, txorien neurrira egindakoak, eta pieza bakarrak sortzeko aukera izango dute tailer honegatzat", azaldu du Berrizko Udalak ohar baten bitartez. Hirugarren tailerra ekainaren 6an izango da. Parte hartzaileek ur jokoak egingo dituzte eskolako patioan. Zikloa amaitzeko, Berrizjauregiko lorategian mozturiko mitologikoak egingo dituzte, 17:00etan.

OSASUN GIDA

**Podologia**
PSE: 214/06



OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

**Odontologia**
PSE: 26/22



HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durangoan

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordutegia:
Astelohenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango. Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

**Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA -
INPLANTOLOGIA - KIRURGIA -
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA - ODONTOPEDIATRIA - PADI -
HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

**Fisioterapia**
PSE: 119/13



ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Solo pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

**Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

**Naturopatia eta Homeopatia**

Aurora Julià

HOMEOPATIA • NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218

Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus



**Psikologia**



gure
Hezkuntza zailtasunak

Hezkuntza zailtasunen
diagnostikoa eta esku-hartzea,
diskalkulian adituak.

613 038 933
Andra Mari, 16 ID Durango

**Psikologia**



gure
Psikologia

Helduak-nerabeak-haurrak

• Zure buruan konfiantza sendotzeko •
• Estresa kudeatzeko •
• Zure harremanak hobetzeko •

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

613 05 38 62
Andra Mari, 16 ID Durango

**Optometria**
PSE: 162/13

NAILA ZABALA
AIZMENDI
11567 kot. zk.



keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

• JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
• IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO
ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
• SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL
IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
• ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

Atxondon pilota berpiztea helburu duen hitzarmena

Atxondoko Udalak eta Bizkaiko Pilota Federazioak akordio bat sinatu dute herrian esku-pilota biziberritzeko. Horri eskerrak, gaur egun 16 bat ume dabilta pilotan. Datorren urtera begira, garai bateko pilota eskola berriro martxan ipintzea dute helburu

Joseba Derteano ATXONDO

Atxondoko Udalak eta Bizkaiko Pilota Federazioak hitzarmen bat sinatu dute herrian pilota bultzatu eta berrindartzeko. Pilota tradizio handiko kirola izan da herrian, baina indarra galtzen joan da apurka, eta akordio honegaz bultzada bat eman gura diote. "Pilota herriko bizitzaren parte izan da urte askoan, eta hori berreskuratu gura dugu", adierazi du Eneritz Agirre alkatea.

Umeak entrenatzeko, etxeko pilotari baten aldeko apustua egin dute. Josu Eguren pilotari atxondarrak hartu du ardura. 24 urtegar, gogotsu heldu dio



Jon Aranburu zinegotzia, Josu Eguren entrenatzailea, Eneritz Agirre alkatea eta pilotariak.

erronkari: "Atxondoko pilota-lekuan hazi eta hezi nintzen eta orduan ikasitakoa orain umeei erakusteko aukera izateak ilusio handia egiten dit", esan du.

Egitasmoak harrera ona izan du. Gaur egun, 4tik 13 urtera arteko 16 bat neska-mutil dabilta pilotan, denak atxondarrak, eta saioaren batean 20 baino gehiago ere bildu izan dira. Martitzen eta bariku arratsaldeetan entrenatzen dira, Apatako pilotalekuan. "Gaztetxoak berriro frontoian gozatzen ikustea da proiektu honen arrakastarik handiena", adierazi du Jon Aranburu udaleko zinegotziak.

Partiduak txapelketa herrikoian Joan zen domekan, pauso berri bat eman zuten proiektua sendotzeko. Hainbat umek Atxondon martxan den pilota goxoa txapelketako atariko partiduak jokatu zituzten, eta aurrerantzean ere horrelaxe egingo dute jardunaldirik jardunaldi.

Datorren urtera begira, garai bateko Atxondoko Pilota Eskola berriro martxan ipintzea dute helburu, eta kudeaketa osoa bertatik eramatea.

Martxan da Atxondoko udalekueetan izena emateko epea

J.D. ATXONDO

Aurten ere, Atxondoko Udalak umeentzako udarako aisialdi programa eskainiko du Atxondoko Herri Udalekuak eginda. Sportmadness enpresak kudeatuko du, ludotekaren ardura duen enpresak berak.

Udalekuak 2-3tik 12 urtera bitarteko umeei zuzenduta daude; hau da, 2013tik 2022ra arte jaiotakoek parte hartu dezakete. Udalekuak astelehenetik bari-kura izango dira eta bost txanda egongo dira aukeran: ekainaren 23tik 27ra, ekainaren 30etik uztailaren 4ra, eta uztailaren 7tik 11ra, 14tik 18ra eta 21etik 24ra. Goizean izango dira, 09:30etik 13:30era. Izen ematea ekainaren 1ean amaituko da eta asteka egiteko aukera dago. Asteko prezioa 45 euro da ume bakoitzeko. Izen ematea zbolino@sportmadness.club helbidean egin daiteke. Arduradunekin hartu-emanetan ipintzeko, ondoko telefonoak daude: 649 156 151 eta 649 836 448.



Mañariko azokako irudia.

Askotariko postuekin azoka, Mañarian

J.D. MAÑARIA

Kultur Asteari amaiera emateko, 29. Artisau, Elikadura eta Landare Azoka egingo dute domeka honetan Mañarian. Plaza inguruan askotariko postuak egongo dira 10:00etatik aurrera. Goizak osagai gehiago ere izango du. Esaterako, Euskadiko Azpi Gorri txapelketa egingo dute urteroko ohiturari eutsita. Horrez gainera, 11:00etan, Alluitz Naturak talo eta artile tailerrak eskainiko ditu frontoian, eta 12:00etan Andra Mari dantza taldeko haur eta gazteek dantza saioa egingo dute.

Euskal ohiturak oinarri Angurretako ikuskizunean

Mañariko Kirikiño Abesbatzak, Andoni Salamero olerkariak eta Aitor Furundarena musikariak 'Kantuez, kontuez... urtea bota' ikuskizuna aurkeztuko dute zapatuan Angurretan. Ikuskizunak narrazioa, musika, kantua eta dantzak uztartzen ditu

J.D. MAÑARIA

Zapatuan, 19:00etan, *Kantuez, kontuez... urtea bota* ikuskizuna aurkeztuko dute Angurreta harrobian, Mañariko Kultur Asatearen barruan. Euskal tradizioei eta ohiturei hilerik hileko errepasoa egingo dion proiektu berezia da, narraitiba, musika eta dantza uztartzen dituen.

Ekimenaren sortzaileak Andoni Salamero olerkari eta esataria eta Aitor Furundarena musikari ezaguna dira. Proiektua Kirikiño abesbatzari eskaini zioten eta "oso interesgarria" iruditu zitzaion, abesbatzako zuzendari Itxaso Agirrezabalaren esanetan. Denek elkarregaz eta



Angurretan egindako entsegu saio bat. KIRIKIÑO

udalaren laguntzagaz atera dute aurrera.

Emanaldia urteko hamabi hilabeteetako ohitura eta tradizioetan oinarritzen da. Hil bakoitzeko euskal kanta eta kontakizun bana edo gehiago plazaratuko dute. Esaterako, urtarrian *Elurra mara mara* abestuko dute, otsailean *Santa Ageda*, eta ekainean *Aita San Antonio* eta *San Juan* abestiak.

Diziplina desberdinak

Narrazioen bitartez, Salamerok ikuskizunaren haria eramango du, Furundarenak akordeoia joko du, eta Kirikiño abesbatzako hamabi kidek abestiak kantatuko dituzte. Abesti bakoitzak bere 'jantzia' izango du: abesti batzuetan albokari bat gehituko da, besteetan perkusionista bat, eta Aritz Lasaguren eta Leire Sagastagoia dantzariak ere parte hartuko dute; baita Ina Dantza Eskolako bost dantzariak ere.

Ikuskizuna Angurreta harrobian da. "Ez dago eszenatoki hoherik", esan du Agirrezabalak. Eguraldi txarra egiten badu, elizara tokialdatuko dute ikuskizuna.

Okm: batzen gaituen distantzia

anboto
kide

BERRIA!

BED 'S

- Momentuko deskontuaren gainean %5eko deskontua.

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia
eta psikomotrizitatea

- %15 eko deskontua saio solteetan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan.

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atseden sistemetan.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran.

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan.

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
 - %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audilogian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

LA PERLA

- %15eko deskontua sasolan jartzeko talaso zirkuituan.
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- %5eko deskontua 100 €ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100 €tik gorako erosketetan.

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua 20 €-tik gorako erosketetan.

OSASUN ETXEA

- Zatoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline)

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeke aire-goazarrietan izan ezik).

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100 €ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100 €tik gorako erosketetan.

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandiko Urkioil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan.
- %10eko deskontua papergintzan.

URTXINTXA JOSTAILU DENDA

- %5 eko deskontua erosketen guztietan.
- %10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua.



Atera etekina txartelari!

**Egin zaitez
Anbotokide:
946 816 558**

Deitu eta
eman izena!



**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

MAIATZEKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



Basa take away jatetxeko bowl osasuntsu berri bat opari, gozo jateko zure burua zainduz.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Santrokazek sanprudentzioen lekukoa hartu dute Abadiñon

Gaur, barikua, Tapia eta Leturiaren kontzertua egongo da. Bihar, zapatua, Sweet Rage, Estutu eta Hofe taldeena



Gerbasen kalejira.

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

San Prudentzio jaiak amaituta, santrokazen ordua da orain. As-telehen iluntzean, Gerbasen kalejiragaz eta Talde Batuak taldeko dantzarien azken entseguagaz hasiera eman zioten jaiei Zelaietan. Maiatzaren 25era bitartean, gustu eta adin guztietarako egitarau zabala izango dute bertan.

Gaur, esaterako, umeentzako jarduerak, zumba saioa, martxa herrikoia eta Tapia eta Leturiaren kontzertua egongo dira, besteak beste. Bihar, Ganbaru Txirrindulari Elkartearen txangoagaz emango diote hasiera egunari. 14:00etan Gazte Bazkarirako batuko dira, eta iluntzean Sweet Rage, Estutu eta Hofe taldeen kontzertuak egongo dira. Asteburua borobiltzeko, domekan dualoi familiarra eta umeentzako jolasak egongo dira.

Limpiezas Abando zigortzeko prozesua martxan Abadiñon

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak zehapen-espediente zabaldutako udal erakinek zein lokalak garbitzeaz arduratzen den Limpiezas Abando S.L. enpresari, garbiketa kontratua behar den moduan ez betetzeagaitik. "Antzeman ditugun arau-hausteei kontratuan ezarritako baldintza teknikoei eta indarrean dagoen lan araudiari eragiten dietenez,

zigor ekonomikoak ipintzea eta kontratua etetea ekarri dezakete", adierazi dute. Arau-hauste bi antzeman dituzte. Batetik, egiaztatu dute garbiketa enpresak erabiltzen dituen produktuek ez dutela agiri teknikoan eskatzen den ekoetiketarik. Bestetik, egiaztatu dute indarrean dagoen lan araudia eta adostaturako soldata baldintzak urratu dituztela. "Ezinbestekoa da kontratuak behar den moduan betetzea eta langileen ongizatea bermatzea", esan du Mikel Urrutia alkateak.

Udaleku irekian eta udaleku ibiltarian izena eman daiteke

M.Z. ABADIÑO

Mallabiko Udalak udaleku bi prestatu ditu 2025erako. Bata 4tik 12 urtera arteko haurrei zuzendurikoa da, udaleku irekia, eta bestea 13tik 18 urtera arteko gazteei zuzendurikoa, udaleku ibiltaria. Haurrena ekainaren 23tik uztailaren 18ra izango da, eta gazteena uztailaren 12tik 18ra.

Martxan Kultur Hamabostaldia

Mallabiko Kultur Hamabostaldia ekitaldiz josita dator aurren ere, eta dozenaka ekitaldi hartuko ditu. Ekimena martxan da dagoeneko eta ekainaren 22ra arte iraungo du. Bihar, esaterako, 7 Pago Mendi Lasterketa, garagardo dastatzea eta karro potea egingo dituzte, besteak beste. Zutik elektrotxaranga herria girotuko du.



@ZUTIK_ELEKTROTXRANGA

Río de Oro boluntario bila dabil Saharako umeen udalekuetarako

Bederatzi txanda antolatu dituzte, bat asteko. Izena emateko epea maiatzaren 25era arte dago zabalik

J.D. IZURTZA

Río de Oro Saharako umeen harrera udalekuan parte hartzeko boluntario bila dabil. Egonaldia Izurtzako aterpetxean egingo dute, ekainaren 26tik abuztuaren 29ra, eta aniztasun funtzionala duten umeak hartuko dituzte harreraren. Elkartek zehaztu duenez, bederatzi txandatan antolatuko dute egonaldia; txanda bat egingo dute asteko, barikutik barikura. Boluntario lanetan lagundu gura duenak txanda bat edo bi aukeratu ahal izango ditu.

Izena emateko epea maiatzaren 25era arte dago zabalik. Ins-kripzioak riodeorodurango.com atarian egin behar dira. Intersedunek maiatzaren 31n jakingo dute zein txanda egokitu zaien, eta ekainaren 5era arteko epea izango dute parte hartzea baieztatzeko.

Jaialdia zapatu honetan

Río de Oro jaialdi solidarioa egingo du zapatu honetan Landako Gunean eta Plateruenean. Fronte Polisarioaren urteurrenaren ospakizun ofizialagaz bat



Río de Oren udalekuak. RÍO DE ORO

egingo dute, bai Durangon eta baita Euskal Herri osoan ere.

Landako Gunean puzgarriak eta paella txapelketa izango dira, 11:00etan hasita. 12:30ean Saharar kulturako dantzak egingo dituzte eta hango tea eta

gozokiak dastatzeko aukera egongo da. 17:00etan Hamarru elektrotxaragaren txanda izango da. Geroago, 20:00etan, Plateruena Kultur Aterpeak musika taldeen bertsio lehiaketa hartuko du.

Garaiko umeek euren ortua inauguratuko dute domekan

E.H. GARAI

Garaiko umeek domeka honetan inauguratuko dute euren ortua, 11:00etan. Plazan batuko dira lehenengo, eta denak batera joango dira ortura. Zereginen artean honako hau izango dute: orain aste batzuk potoetan ereindako kalabaza eta krispetatarako arto haziak ortuan landatzea. Halaber, txorimaloa eta *intsekuen hotela* ere ipiniko dituzte.

Trumoitteko kideek zehaztu dutenez, ortua Oar aldean egongo da, elkarri atxikitako etxeen atzealdean. Etorkezunean, ortua zaintzeko irizpideak ezarriko dituzte, belar txarrak kentzeko eta ingurua egoki mantentzeko balioko dutenak.

Zaldibar Euskal Herriko gazte feministen topaleku, udazkenean

"Gorputzen, herrien eta bizitzen burujabetzaren aldeko apustua" berretsiko dute "lubaki feministetatik"



Baterajotzea iragartzeko agerraldia Zaldibarren, joan zen zapatuan. GAZTE FEMINISTAK

Joseba Derteano ZALDIBAR

Euskal Herriko Gazte Feministek Baterajotzea egingo dute Zaldibarren, urriaren 31tik azaroaren 2ra. "Lubaki feministetatik" hasita, "gorputzen, herrien eta bizitzen burujabetzaren aldeko apustua" berretsiko dute. Hori dela eta, topaketetan "espazio publikoa, kontakizuna, autodefentsa eta konspiraziorako gaitasuna" berreskuratzea izango dute helburu.

Gazte feministen esanetan, "beldurraren kulturak immobilismoa" bultzatu du gizartean, eta "mugimendu antolatuak" ipini dituzte egoerari aurre egiteko alternatiba legez. "Ortizimuga feminista marrazteko ueña" izango da Baterajotzea, "feminismoaren aurkako erasoan, misoginia modernoaren eta lege errepresiboen aurrean" antolatzeke ueña.

Kultur Aniztasun Jaia ospatuko dute, Otxandion, zapatuan

A.B. OTXANDIO

Kultur Aniztasun Jaia antolatu dute zapaturako Otxandion. Udalak, Gazte Asanbladak eta 11 Lore elkarteak elkarlanean prestatu dute egitaraua eta arrazismoaren inguruko gazte eta helduen arteko mahai-ingurua izango da lehenengo ekimena. Bolalekuan izango da, 12:00etan, eta bertaritzen direnek tea dastatzeko aukera ere izango dute. Aldi berean, plazan, munduko jolasak egongo dira ume eta gazteentzat.

Hainbat jatorritako otxandiarrek egindako pintxoak dastatzeko aukera eskainiko dute, 13:30ean, plazan. Sonakay talde irundarrak eskainitako kontzertuak borobilduko du egitaraua, 14:30ean.

Mario Padilla txistulari otxandiarra omenduko dute

A.B. OTXANDIO

Otxandioko eta Ezkoriazako txistulariek Mario Padilla Maguregiren (Otxandio, 1928-2024) omenezko kontzertua emango dute zapatuan, Andikona plazan. Urduri dantza taldeak eta Otxandioko Musika Bandak ere parte hartuko dute. Emanaldia 19:00etan hasiko da. Padillak euskal kultura sustatzen egindako "ezinbesteko" lana gogoratu dute antolatzaileek: "Euskal dantzak irakatsi eta euskal giroa piztu zuen". Koruan abestu zuen eta saxofoia jo zuen Musika Bandan. 1965ean Ezkoriazara joan zen, eta Musika Bandako zuzendaria eta Gorosarri dantza taldeko sortzailea izan zen, besteak beste.

Betikoak flexografía

BULEGORAKO ZIGILUAK FOTOLITOAK

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Elkasko EK

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Garai eta Lantziego, senide

2013tik honako ohiturari eutsita, Garaiko eta Lantziegoko herri-tarrek (Arabako Errioxa) beren senidetzea berritu dute. Aurten garaitarrei egokitu zaie Lantziegora joatea. Zeltiberiar urmaela bisitatu eta hamaiketako egin zuten. Ondoren, herri bazkarian batu ziren eta familia argazkia atera zuten.



DURANGALDEA ASTEON

Igerilekuaren kudeaketa eta tabernarena, lizitaziora

ATXONDO Ohar batean jakinarazi duenez, Atxondoko Udalak lizitazio-ara atera du igerilekuko tabernaren kudeaketa udako denboraldirako. Proposamenak maiatzaren 20ra arte aurkeztu daitezke.

Tabernagaz batera, udalak igerilekuaren kudeaketa orokorra ere atera du lehiaketara aurten. Kasu honetan, maiatzaren 23ra arte aurkeztu daitezke proposamenak. Lehiaketa bietako oinarriak udalaren webgunean daude, 'Kontratatzailaren profila' atalean.



Gaixotasun arraroen ikerketa bultzatzeko kanpaina

DURANGO Jonek lau urte ditu eta Durangon bizi da. Bere gurasoek jakinarazi dutenez, semeak ez du diagnostikorik oraindino, baina badakite ASTN1 genearen mutazio bat duela; hau da, gaixotasun arraro bat duela. Hori dela eta, kanpaina bat hasi dute gaixotasun arraroak ikertu ahal izateko. Ekimenagaz bat egitera deitu dituzte herritarrek. "Ikerkuntzarako dirua ematera animatzen zaituztegu. Zientzia da gure esperantza", esan dute. Interesdunek elviajedenica.org/es/nicas/066 webgunean egin ditzakete ekarpenak.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



POLITIKAN

CARLOS GARCÍA
PP

Aparkaleku arazoei konponbidea

Durangon ibilgailuentzako aparkalekurik ez egotea oso gabezia handia da gaur egun, bai gure bizilagunentzat bai bisitatzen gaituztenentzat, eta, beraz, arazo handia da gure saltokientzat; izan ere, saltoki handiekin lehiatzen dira eta azken horiek gertuko aparkaleku erraz eta doakoak eskaintzen dizkiete. Gaur egun, aparkaleku-eremuak handitu behar dira, eta disuasio-aparkalekuko bi eremu egokitu gutxienez, egungo TADU aparkalekuaren antzeko bi aparkaleku handi. Horietako bat behin-behinekoa izan liteke eta ia berehala ezarri ahal izango litzateke trenaren egungo lurretan, osasun-zentroaren proiektua gauzatzen hasi arte. Alde horretatik, nire proposamen zehatza erizaintza-fakultatea duen eskualdeko ospitale bat da. Baina proiektu horrek aurrera egin arte, gaur egun ia erabiltzen ez diren lursail horien aukerak aprobetxatu behar ditugu. Izan ere, merkaturako, barraketarako eta zezen-plazarako ez bada, eremu hori ia ez da erabiltzen urte soan.

Inbertsio txiki-txiki batekin, aparkalekuari, bizilagunei, bisitatzen gaituztenei eta tokiko merkataritzari irtenbidea eman ahal zaie. Horrela, aparkaleku faltagatik merkataritza-gune handietara joan eta Durangoko dendetan erosteari utzi dioten bezeroak erakarri daitezke berriro. Berehalako konponbidea litzateke, erraza, behin-behinekoa, disuasio-aparkaleku biren kokapenik onena aztertzen den bitartean.

Ikusi bideoa



Pepe Mujica durangarregana zuzendu zenekoa

DURANGO José 'Pepe' Mujica hil da asteon, Uruguako presidente ohia, 89 urte gaz. Honen harira, sare sozialetan orain urte bi Mujicak durangarrei zuzenduriko mezua bideratu da. 2022ko irailean bideo bat grabatu zuen durangarrentzat, udalerraren eta Uruguako Montevideo hiriburuaren arteko senidetzea zela eta. Durangoko Udalaren Youtubeko kanalean ikusgai dago.



Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta
Miren Abasolo Txabarri eta Xabier Lazkano Baseta.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Irati Otadui Maiztegi.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

ONGIZATE

gehigarria



Barrenkalea, 28 | 946 817 918 | naturalkibelardenda.es



keinu
OPTOMETRIA ZENTROA
PSE: 162/13

- Jokabide optometria
- Haurren ikusmena
- Ikusmenaren entrenamendua
- Jatorrizko erreflexuak
- Fototerapia optometrikoa
- SENA entzumenaren estimulazioa
- Kirol ikusmena
- Garuneko lesioak
- Orto-k eta mioparen kontrola

Arkaraz 3 · BERRIZ · 94 622 50 99
keinuoptometrizentroa.com



Joseba Derteano DURANGO

Mende laurdenaren atarian, 8.500 paziente baino gehiago artatu dituzte Unamunzaga-Etxebarria hortz klinikan. Denbora honetan, puntako berrikuntza teknologikoak barneratu dituzte. Bea Unamunzagak erantzun die ANBOTOren galderei.

Zelan markatu dute aurrerapen teknologikoen zuen lana?

Teknologia berriek lana erraztu dute. Oso argi izan dugu beti inbertsioa funtsezkoa dela pazienteari zerbitzurik onena emateko, eta horretan ahalegindu gara. Ahoaren 3Dko irudiak sortzen dituen puntako eskaneerrak eskuratu ditugu. Mota bikoak dira: batek ahoko hezurduraren irudia osoa eskaintzen digu, eta besteak hortzedurarena. 3Dko teknologia denez, irudiak edozein ikuspegiatik aztertu ditzakegu. Beste abantaila bat da asko errazten digula hartu-emanen pazienteagaz: hortzen egoera erakusteko, tratamenduak azaltzeko... Pazienteak unean bertan eta zehatz-mehatz jarraitu dezake egiten gabiltzana. Teknologia honek oso harrera ona izan du pazienteen artean, oso esker

oneko agertu zaizkigu, eta beste eskaner bat ere eskuratu dugu, belaunaldirik berrienekoa. Beste abantaila bat ere aipatu gura nuke: datuak digitalki bidaltzeko aukera. Esaterako, lehen pasta edo ore bat erabiltzen genuen protesiak egiteko. Orain ia ez dugu erabiltzen. Datuak digitalki bidaltzen ditugu laborategira. **2026an 25 urte egingo dituzue.** Hala da. Edur eta biok hasi ginen eta oraindino elkarregaz jarraitzen dugu. Apurka lantaldea handitzen joan gara. Denbora honetan, 8.500 pazienteetik gora artatu ditugu eta esker onekoak gara denekin.

Garai batean hortzen osasuna zaintzea zen hortz klinikara joateko arrazoi nagusia. Gaur egun, estetika kontuek geroago eta pisu handiagoa dute?

Bai. Esaterako, oso modan dago hortzak zuzentzeko tratamendua. Bai adin batetik aurrerakoen artean, urteekin hortzak horixkatzen eta higatzen joaten direlako, eta baita gazteen artean ere, sare sozialetan horrelako tratamenduei buruzko edukia ikusten dituztelako.

Zuritze maila desberdinak daude?

"Prebentzioa da neurririk onena hortzak zaintzeko"

BEA UNAMUNZAGA ETA EDUR ETXEBARRIA ODONTOLOGOAK

Durango Unamunzaga-Etxebarria hortz klinikan 25 urte egingo ditu datorren urtean. Puntako teknologiaz hornituta, pazienteekiko gertutasuna dute bereizgarri

Bai, zenbait aukera dago eta paziente bakoitzak erabakitzen du bere zuri gradua. Guk kolore naturalak gomendatzen ditugu. Zuritze tratamendu baterako lehenengo pausoa ahoaren azterketa bat egitea da. Ahoak osasuntsu egon behar du. Gero, tratamendu mota bi daude: klinikan egiten dena eta etxean egiten dena. **Zeintzuk dira tratamendu mota**

"INBERTSIOA FUNTSEZKOA DA PAZIENTEARI ZERBITZURIK ONENA EMATEKO"

bakoitzaren ezaugarriak?

Klinikakoa tratamendu arina da. Emaizak denbora gutxi barru lortu gura dituenak erabiltzen du, lasterrera ezkontza bat duenak, esaterako. Etxeko tratamenduak luzeagoak dira eta pazientearen partetik ekina izatea eskatzen du. Tratamenduak irauten duen bitartean, oso garrantzitsua da elikadura egokia eramatea. Emaiz hobe lortuko da eta orbanak saihestuko dira. Dieta zuri bat egitea gomendatzen da. Hau da, ardoa, tea, tomate, currya eta antzerako saltsak ez hartzea gomendatzen da. Pazientearen partetik konpromiso bat eskatzen du. **Hortzen posizioa zuzentzeko lerro-**

katzaila ikusezinek (Invisalign eta antzerako ortodontzia sistemak) ere geroago eta indar handiagoa dute, braketan aurrean. Zeintzuk dira sistema honen ezaugarriak?

Arlo honetan ere aldaketa handia izan da. Lehenengo eta behin, ondo aztertu behar da paziente bakoitzarentzat zer den onuragarriagoa: Lerrokatzaile edo *aligner*-a, ala braketak. *Aligner*-a oso sistema eroso da eta oso emaitza ona ematen du. Ez du zauririk eragin dezakeen pieza metalikorik. Eta oso estetikoa da, kanpotik ez delako ikusten. Hain zuzen ere, jende heldu asko horregaitik animatzen da, ikusezina delako. Bere burua ez du



A. Urreta
podologia



Oinara Urreta Jainaga

Oinetako patologiak
Oinaren azterketa biomekanikoa
Neurrira egindako plantilak

Herriko gudarien kalea, 10 behea
DURANGO
Tel.: 946 215 404



MENDI FISIOTERAPIA & OSTEOPATÍA

- GAREZURREKO, ERRAIETAKO ETA PEDIATRIKO OSTEOPATÍA.
- ARNAS FISIOTERAPIA ETA FISIOTERAPIA KARDIOBASKULARRA PEDIATRIAN ETA NEUROLOGIAN.
- DRAINATZE LINFATIKOA ETA ZAINETAKOA.
- ERREHABILITAZIOA

IKER GARAMENDI BURUAGA 94 603 21 17 / 688 64 44 07
Kurutzaga kalea 15 behea info@mendifisioterapia.com
DURANGO www.mendifisioterapia.com



XARMA
Fisioterapia eta Osteopatía

Martíne Usabel Lizundia

INDAR ARIKETAK
ARIKETA TERAPEUTIKOAK
HIPOPRESIBOAK
HAURDUNALDI KLASEAK
Eskaintzen dira



HOBETU
Fisioterapia & Podología

EKOGRAFIKAK ETA INDIBA BIDEZKO TRATAMENDUAK
P/ info@hobetu.es · T/ 946 582 444
K/ Buzkantz kalea, 2 · 48230 Elorrio
www.hobetu.es

Instagram Facebook



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatía

Muruetatorre, 2D - 48200 Durango
pzubizarreta@gmail.com
Tel.: 946 550 049 / 695 784 963

☎ 673 589 190
@xarmafisioterapia
✉ fisioterapiaxarma@gmail.com
📍 Trafalgarren 27,
Traña-Matena, Abadiño



Bea Unamunzaga eta Edur Etxebarria, 3Dko eskanerraren ondoan.

braketekin imajinatzen, baina bai *aligner* sistemagaz. Desabantailen artean, honako hau nabarmenduko nuke: pazienteari ekinaz izatea eskatzen dio. Hau da, egunero fundatxo ipini behar

da nahitaez. Ipini ezik, ez dago zereginik.

Geroago eta heldu gehiago animatzen da, beraz. Eta gazte eta nerabeen artean?

Berdin, *aligner*-a boom bat izan

da gazteen artean. Baita profesionalon ikuspuntutik ere. Lehen posible ez ziren aukerak eskaini dizkigu. Garai batean, umeei behin betiko hortz guztiak irten arte itxaroten genuen aparatua

ipintzeko. Orain, esneko hortz batzuk izanagaitik, *aligner*-a ipini daiteke. Prebisioz jokatzeko aukera eskaintzen du. Gure pazienterik onenak 7tik 10 urtera arteko umeak dira. Tratamendu honek umeengan duen emaitza ezin hobea da ikuspuntu denetatik.

Tratamenduaren ondoren, mantentze-lana egin behar da?

Bai. Argi esaten diet pazienteei: mantentze-lana oso garrantzitsua da, urteak joan ahala hortzak mugitu egiten dira eta. Bizitza osoan zehar, gauero, atxikitzaile bat ipini behar da ahoan. Horrela bermatuko da hortzak bere tokian egotea bizitza osoan zehar. **Zer gomendio ematen diezu gurasoei seme-alaben hortzetako osasuna zaintzeko?**

Oraindino badago halako uste bat, esneko hortzak ez direla tratatu behar. Baina esneko hortzak ondo zaintzea inportantea da, behin betikoak behar den tokian irten daitezten. Aldiro ahoko azterketa bat egitea komeni da. Arlo horretan, Osakidetza Haurren Hortzak Zaintzeko Programa (PADI) fenomeno dator. 15 urtera artekoek doan

dute hortz-tratamendua. Baina hortik aurrera hutsune bat ikusten dut, gutxi gorabehera 18 urtetik 30 urtera arteko gazteen kasuan. Azterketa egiteko ohi-tura galtzen dute. Prebentzioa da neurririk onena hortzak zaintzeko.

Adinekoen kasuan, zer esan dezakegu?

Geroago eta adineko gehiago dago eta gerodontologiak geroago eta garrantzi handiagoa du. Nire ustez, zahar egoitza publiko guztietan dentista edo higienista bat egon behar litzateke, eta ospitale publiko guztietan odontologia zerbitzu minimoa. Horrez gainera, radioterapia edo kimioterapia hartzen dutenentzat ere ospitaleko odontologia zerbitzua egon behar litzateke, eta baita traumatismo bat izan eta larrialdietara joaten direnentzat ere.

"HORTZAK ZURITZEKO TRATAMENDUA OSO MODAN DAGO, BAI GAZTEEN ETA BAI HELDUEN ARTEAN"

VITALDENT
ZURE AHOA DENA DELAKO

Zergatik aukeratu implantologia edimendena?

200€
-ko deskontua*
zure implantologiko tratamenduan

Inbadiatzeak da minimoki, beharria eta entsekuazio hobeenekin

DURANGO Ezkurdi plaza, 2
946 217 604

* 25/03/2024tik 25/05/2024 bitarteko promozio baldina, biak barne. Onartutako sarrerak 250 €-tik gorako unitateko benetakoak duden tratamendu-lerroei aplikatuko zaie. Ezin zaie beste deskontu eta sustapen batzuei metatu. Kontsultatu zure tratamenduaren tarifak Vitaldent klinikan, Medikuen agindutako tratamenduak. CS30715 osasun-enregistra. RPS 205-21

PODOLOGOA
Minerva Olmedo

- HIPERKERATOSIA (oinetako gogorguneak)
- AZAZKALETAKO ARAZOAK ETA ABAR
- MIAKETA BIOMEKANIKOA
- POSTUROLOGIA
- OIN DIABETIKOA
- OIN-ZOLARAKO EUSKARRIAK (barne-zolak)

ORDUA ESKATU BEHAR DA LEHENAGO

Txatxena kalea, etxeba 2 (Sarrera Juan M Altuna kaleatik)
Tel: 94 620 13 81 DURANGO - Mugikorra: 607 410 562

molmedor@gmail.com · www.mipodologo.com

R.P.S. 172/06 CoL77

URALDE
KLINIKA DENTAL

Uralde 1, behea
48215, IURRETA, Bizkaia

667 097 575 · 946 550 055
info@klinikaauralde.com
www.klinikaauralde.com

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTOLOGIA · KIRURGIA · ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) · ETA IKUSEZINA · ODONTOPIEDIATRIA · PADI · HORTZETAKO ESTETIKA · HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

Maialen Zuazubiskar FISIOTERAPIA

Martiñe Usabel atxondarrak orain urte bi zabaldu zuen Xarma fisioterapia eta osteopatia zentroa Traña-Matienan. Orduetik hona, lesioak tratatu, ariketa terapeutikoak eskaini eta zoru pelbikoari behar den garrantzia ematen dabilta bertan, besteak beste.

Lesioak tratatzea fisioterapeuta baten eguneroko oia izaten da. Zeintzuk dira lesiorik ohikoena?

Tendinitisa eta zerbikalgia asko tratatzen ditugu. Egunerokotasunean barneratuta ditugun postura okerregaitik sortzen diren lesioak dira batez ere. Zortzi orduko lanaldi batean gatz da postura egoki bat mantentzea, eta horrek, gerora, mina dakarkio gorputzari. Horregaitik, oso garrantzitsua izaten da indar ariketak egitea, horiek eginda errazagoa delako postura egoki bat mantentzea. Orokorrean, jendeak ez du kirola egiten muskulatura garatzeko, baina giharrek garatzea ezinbestekoa da. Muskuluek babestu egiten dituzte artikulazioak eta hezurak, eta babes horri eskerrak gutxitu egiten da minaren frekuentzia.

"Norbere burua egunero zaintzea da tratamendurik onena"

MARTIÑE USABEL LIZUNDIA XARMA FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

Traña-Matienako Xarma fisioterapia eta osteopatia zentroko arduradunak lesioak tratatu eta hauek saihesteko indarra lantzearen garrantzia nabarmendu du



Martiñe Usabel.

Bestalde, gaur egun estresa ere ohiko gaixotasuna da eta horrek ere desoreka bat eragiten du gorputzean. Askok estresak eragindako minak izaten dituzte. Esaterako, pertsona askok buruko min konstantea dute eta min hori normalizat hartzen dute, baina ez da normala. Tratamendu bategaz, gutxitu egin daitezke.

Xarma zentroan garrantzi handia ematen diezue indar ariketei eta ariketa terapeutikoei.

Maila eta adin desberdinei bideratutako indar ariketak eskaintzen ditugu, baita luzaketa eta mugimendu saioak ere. Pertsona bakoitzaren beharrianetara egokitzen gara; hori ezinbestekoa da guretzat.

Zoru pelbikoa tratatu eta honen lesioak ere prebenitzen dituzue. Garrantzitsua da?

Zoru pelbikoa zaindu egin behar dugu, emakumezkoek zein gizonezkoek. Zoru pelbikoko desorekek eragina dute muskulu eskeletikoetan, eta hori lantzea beharrezkoa da. Maddi, nire lankidea, espezialista da zoru pelbikoan, eta tratamenduak egiten ditu. Horrez gainera, zoru pelbikoko muskulatura mantentzeko eta hobetzeko ariketak ere egiten ditugu. Emakumezkoen kasuan, haurdun dauden emakumeek ariketa klaseak ematen dizkiegu. Umea izan eta gero ere bai.

Medikuak pilulak errezetatzen ditu. Martiñek zer errezetatzen dio Xarma zentrori doanari?

Bizi kalitate osasuntsua eramatea gomendatzen dut. Oreka bat bilatzea kirolagaz, elikaduragaz eta buru osasunagaz. Oreka hori lortzen dugunean izango dugu gorputza ondoen. Norbere burua egunero zaintzea da tratamendurik onena. Bere burua zaintzera eta oreka hori mantentzera animatzen dut jendea.

IQ.
LEIRE QUESADA IZA
hortz klinika

📍 Kanpatorrosteta 5 Bajo, Durango
☎ 944651845 / 688732990
🌐 www.leirequesada.com

*Zure irribarrea.
gure helburua*

amatza abasolo
errehabilitazio zentroa

Mikeldi, 3 behea • Durango
94 681 68 78 / 688 868 462

- fisioterapia
- trauma
- zoru pelbikoaren lanketa

RPS: 137 / 15

ZAINDU HAGIN KLINIKA
Odontologia orokorra eta espezialitateak

Umeentzako odontologia • Ortodontzia (P.A.D.I. programa)
Inplanteak • Periodontzia • Aho-estetika • Protesiak • etab.

Mari Tere Zamalloa Juaristi
Periodontzia espezializatua • Col.1005

Ferialeku, 1 • Abadiño
Tel.: 94 465 73 42

UGATZ
UMEAREN GARAPENERAKO LAGUNTZA ZENTROA

Arreta goiztiarra / Psikomotrizitatea
Fisioterapia pediatrikoa / Logopedia
Psikologia / Psikopedagogia
Terapia okupazionala

☎ 944 668 370 ☎ 615 782 090 ✉ ugatz@hotmail.es
Juan de Olazarán, 1 • Durango
📱 [ugatz_zentroa](https://www.instagram.com/ugatz_zentroa)

"Laguntza eskatzea autozaintzaren eta ausardiaren adierazgarri da"

Ernetu Psikologia eta Hezkuntza zentroa esperientziadun profesionalak osatzen dute. Gazte zein helduen beharrei erantzuten dien lantaldeak Durango du bere kontsulta



Ernetuko kideak: Begoña Valiente, Josu Saetero, Joseba Vera eta Yurena Miguel.

Jone Guenetxea DURANGO Nortzuek osatzen duzue Ernetuko lantaldea?

Ernetuko lantaldea oso formakuntza zabala eta zehatza duten lau psikologo profesionalez osatuta dago. Osasun psikologian masterdunak ditugu gure lantaldean, gazte eta helduentzako esku hartzean espezializatutakoak, ume zein nerabeen esku-hartzean espezializatutakoak eta hezkuntzara aplikatutako psikologian adituak gara.

Psikologiaren arloan, zein zerbitzu eskaintzen duzue?

Kognizio-jokabide psikologia aplikatuta, 6 urtetik gorako pertsonen bideratutako laguntza psikologikoa eskaintzen dugu; hau da, ume, nerabe, gazte eta helduei zuzendutakoa. Pertsona bakoitzari egokitutako plan zehatzen bitartez lan egiten dugu. Lantaldea osatzen dugun adituon esanetan, pertsona bakoitzaren adin-tartea eta zailtasuna kontuan hartuta atenditzen ditugu bezeroak. Talde-lanean aritzen

gara, baina beti ere konfidentzialtasuna eta bezeroa bera errespetatuta.

Geroago eta gehiago berba egiten da osasun mentalari buruz.

Oraindino ere ohikoa da pertsonak beldurrez edo lotsaz joatea kontsultara lehenengoz. Nahiz eta gizartean osasun mentalari buruzko estigma gutxitzen dabilen eta normalizatzen hasi den esku-hartze psikologikoari dagokionez, jende askok zelanbaiteko beldurra sentitzen du epaiaren aurrean edo prozesuan zer

aurkituko duen ez jakitearen aurrean. Askotan, laguntza eskatzea "ahultasunaren" seinale lez ikusten da, nahiz eta benetan ausardiaren eta autozaintzaren adierazgarri izan. Zorionez, aurrerapausoak ematen jarraitzen dugu.

Zuen esperientziatik, zein arrazoi-rengaitik joaten da jendea kontsultara orokorrean?

Gure esperientzian, pertsonak askotariko arrazoiengaitik etortzen dira kontsultara, baina ohikoenak antsietateagaz eta estresagaz loturiko sintomak izaten dira. Sintoma hauen agerpenak egunerokotasunari aurre egiteko funtzionatzeko dugun moduagaz lotuta egoten dira. Gaur egungo bizitza frenetikoa, beste hainbat faktoreren artean, norbanakoaren barne eta kanpo estresoreekin lotu dezakegu, eta egunerokotasunari aurre egiteko moduak eragin handia du gure ongizatean. Oso azkar eta modu iraunkor batean aldatzen dabilen gizarte bati egokitzeko, norbanakoak dituen baliabideak garatzea ezinbestekoa da, bizitzarako erremintak garatzea. Balio sistema asertibo bat garatzea, adibidez.

"PERTSONA BAKOITZARI EGOKITUTAKO PLAN ZEHATZEN BITARTEZ LAN EGITEN DUGU"



"Bizitzen ala bizirik irauten ari naiz?"

YURENA MIGUEL
HELDUEN PSIKOLOGIA

Zelan dakigu helduok psikologoarengana jo behar dugun?

Arazoa sortzen da ondoreza denboran zehar mantentzen denean eta lasaitasunez bizitzen ez denean. Galde genezake: bizitzen ari naiz ala bizirik irauten ari naiz? Badira kontuan har ditzakegun adierazle edo alarma-seinale batzuk: norberak egoera bat kudeatzeko zailtasuna, aldarre konstantean aldatetako edo alterazioak, harreman pertsonaletan arazoak, seinale fisiologikoen agerpena, estres pertsonalaren maila handia... Ondorez hori aitortzea eta laguntza psikologikoa eskatzea ez da ahultasun-seinale bat, baizik eta nork bere burua zaintzeko eta kontzientzia hartzeko modu bat.



ERKIN.
EDOZEIN ALDAKETAK HASIERA
BAT BEHAR DU.



GARATU.
EGUNEROKO LANAK
HOBETUNTZAK ERAGITEN DITU.



MANTENU.
IKASITAKDA ZAINDUZ
AURRERAPENAK BARRERATZEA
LORTZEN DA.



Lehendakari Agirre, 8, behe 2 ez
Durango (Bizkaia)
info.ernetu@gmail.com
Tel.: (+34) 747 405 191

ernetupsikologiaetahezkuntza.com



Aritz Maldonado DURANGO

Askok rock doinuekin lotzen dute Jon Garcia Zabala durangarra; izan ere, ia nerabea zenetik Mocker's taldeagaz aritu da diskoak kaleratu eta zuzenean aurkezten. Urteotan barruan gorde dituen doinu intimoei forma eman, eta GAR proiektuagaz horiek argitara ateratzen hasi da orain. *Ilargi gorria* eta *Preziatuak diren momentuak* abestiak sareratu zituen aurreko astean, eta udazkenean disko osoa kaleratzeko asmoa agertu du.

Bakarkako proiektua aurkeztu duzu. Zelan, ba?

15 urtez rock esparruan ibili naiz Mocker's taldean, baina abesti poperoagoak konposatzen ere aritu naiz itzalean. Ez zuten Mocker's-en izaeragaz guztiz bat egiten eta horregaitik ez ditut lehenago kaleratu. Musika egunero entzun edo jotzen dut, niretzat beharrezkoa den zoezer da, eta orain urte bi Mocker's lozorroan sartu genuenez (egoera horri aurre egitea oso gogorra izan zela onartu behar dut, bai musika eta baita adiskide modura ere), nire abesti "lasaiagoak" grabatzeko aukera erreala ikusi nuen.

Proiektua lan autobiografikoa da, nik neuk bizi izandako egoerak jorratu ditut, bai letren bitartez eta baita musikaren bitartez ere. Beraz, lan pertsonal eta berezia da niretzat. Hasieran, proiektua akustikoan egiteko ideia izan nuen, baina abestiek

"Bizitako egoeretan oinarritzen da proiektua"

JON GARCIA ZABALA MUSIKARIA

MUSIKA Mocker's hirukoteak etenaldia iragarri zuenetik urte bi pasatu eta gero, Jon Garcia durangarrak abesti propioak aurkezteko hautua egin du, GAR proiektuaren bitartez



Jon Garcia Zabala. SARA ESTEBEZ

kolore maila handiago bat lortzen dute taldeagaz jotzerakoan, eta horixe izan da arrazoi nagusia banda bat bilatzeko. Esango nuke erabaki zuzena hartu dudala. Hala ere, ez dut albo batera uzten bakarkako formatuan ere

kontzertuak ematea, era horretara abestiek kutsu gozo eta delikatu bat lortzen dute eta. **Abesti solteak kaleratzen zabilta.** Bai. Lehenengo abesti biak plataformetan ipini nituen maiztaren 9an. Beste abesti bat gaur

ipini dut, eta 23an beste bat ipiniko dut. Uda ostean zortzi abestiz osaturiko diskoa argitaratzea da nire asmoa, eta, hori dela eta, laster estudioan sartuko gara berriro.

Zer itxaron dezakete entzuleek?

Proiektu honetan pop landua eta sakona jasoko dute, ikutu rockeroekin. Gorka Urbizuk kaleratutako azken diskoaren gordintasuna eta epeltasuna nire barruan geratu da, baina Benson Boonen abesti askotan aurkitu ditzakegun energia eta produktzio lana ere bai. Beraz, bi horien eta beste hainbat influentziaren eskutik jaio dira abestiak.

Eta Mocker'segaz ezagutu zintuztenek? Dezente aldatu duzu erregistroa.

Mocker'setik ezagutzen nautenek nire alderik rockeroenagaz lotuko nautela suposatzen dut, han baxua jotzen nuelako. Baina rockaz gainera beste musika asko dut gustuko, eta oraingoan nire bihotzeko rock doinuak

portuan amarratuta utziko ditut, pop sentikor, melodiko eta sakonaren itsasontzian nabigatzeko. Gainera, izatez, gitarrista naiz, eta, hortaz, proiektu berri honetan baxua albo batera utzi, eta abesteaz gainera gitarra jotzen ere ikusiko naute.

Bakarkako lana izan arren, taldea osatu duzu. Aurkeztu ditzakezu taldekideak?

Esan dudan moduan, bakarkako lana izan arren talde edo banda osoagaz lortu daitekeen soinua eta kolorea itzela izan daiteke, eta, horregaitik, horren alde egin eta proiekturako musikariak bilatzen hasi nintzen. Proiektura batzen lehenengoa Liher Granados Lauzirika (baxua) izan zen, eta geroago Asier Ardanza Cuevas (bateria) eta Martzel Vargas Zabala (gitarra) batu zitzaizkigun. **Baduzue etapa berriko abesti hauek zuzenean aurkezteko asmorik?** Jakina! Irrikan gaude oholtzara igotzeko. Ekaina eta uztaila bitartean estudioa itzuliko gara, beste lau abesti grabatzeko, eta uda ostean zortzi abestiz osaturiko diskoa kaleratzea da gure asmoa. Beraz, irailera edo urrira arte ez dut uste zuzenekorik emango dugunik.

"EKAINA ETA UZTAILA BITARTEAN ESTUDIORA ITZULIKO GARA, BESTE LAU ABESTI GRABATZEKO"



GAI LIBREAN

IUNE RUIZ TAGLE ARTE HISTORIALARIA

San Pedro distopikoak

Sekula ez dut bizi horrelako San Pedrorik. "Bi bakarrik? Nire garaian txosnaguneko barrak kale honen luzera hartzen zuen". Belaunaldi berriekin dekadentzia omen zetorren. Baina aurten ikusi behar zenituzkeen txosnazale beterranoen aurpegiak. Txosnero historikoak dardarrez utzi dituzte aurtengo San Pedroek. Hamar txosna. Bai, hamar. Eta ez edonolakoak. *Megadona*, *Etroski*, *Amazoi*,... Gurean sekula ikusi gabekoak. Mugimendu sozialak gainbeheran daudela esan dezatela gero.

— Kalimotxo bat — esan nion —. Basoarekin eta bi izotzekin, posible bada. — Hiru bitcoin, mesedez.

Eta datafono bat atera zidan! Bukatu dira kanbioak. Txanpon zikin horiek, poltsikoak astundu besterik ez dutenak egiten, txizalarri estu batean prakak hala moduz jaitsi eta ozpindutako ardo eta txapen artean lurretik jaso behar dituzun txanpon zikinak. Teknologia aurreratu, poltsikoa arindu. *This is the future.*

Eta bizitzari gehiago eskatu ezin zaionean, besoa luzatu eta kamareroak paper zati bat eman zidan nire kalimotxo apalarekin. Faktura! Egia esan, onartu beharra daukat sekula ez zaidala gustatu poteatzea. "Nik aurrekoa ordaindu dut". Kuadrilla guztietan egon beharreko diruzalea, txerri-erosle eta txorizo saltzaile! Baina tiketarekin inork ezingo dio ihes egin beldurgarrienari: "Kontuak egin eta erdi bana ordainduko dugu?". *This is the future.*

"PLASTIKOZ, DATAFONOZ, BITCOINEZ ETA FOSFORITOK INGURATUTA EGON NAHI DUT"

Bukatu dira mezu agonikoz jositako pankarta apokaliptikoak. Gaizki ohitu gara parranda miseriaz inguratuta egitera. Baina aurten, erromeria hasi bezain pronto, gizon batzuk agertu ziren publikoaren artean. Motxila lepoan, fosforitok jantzitako zerbeza saltzaileak ziren. Miraculum. *San Pedro Experience™* zioten txanoetatik ateratzen zitzaizkien banderaxoek Aldapan Goraren erritmora dantzaz egiten zuten.

— Kalimotxo bat — esan nion —. Basoarekin eta bi izotzekin, posible bada.

— Bost bitcoin, mesedez.

Bi bitcoin gehiago, bai. Baina 'Gaztela Irratia' jartzen zuen kapela bat oparitu zidaten. Txosna hauetan beti irabazi!

Sekula ez dut bizi horrelako San Pedrorik. Plastikoz, datafonoz, bitcoinez eta fosforitok inguratuta egon nahi dut. Aisialdiaren merkantilizazioa, *that is the future.*

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 16

ABADIÑO Santrokazak
Puzgarriak, Ferialekuan (12:00-14:00).
Umeentzako jarduerak Katalamixon
elkartearen eskutik, 18:00etan.
Zumba, 19:00etan, Txanportan.
Marbxa herrikoia (Añeketan taldea),
19:30ean, Txanporta plazatik.
Tapia eta Leturia, 22:00etan, Txanportan.
Zelaietan.

DURANGO Erakusketa
Fernando Beorlegiren lanak.
*Arte eta Historia Museoa*n,
ekainaren 1era bitartean.

DURANGO Erakusketa
'Zientziak, arteak eta letretako 24
emakume' erakusketa ibiltaria.
Ezkurdin, maiatzaren 29ra arte.

ELORRIO Antzerkia
'Macho grita' (Alberto San Juan).
Arriola antzokian, 20:00etan.

IURRETA Antzerkia
'Obsoletos' (Anodino Teatro).
Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.

IURRETA Kontzertua
Swamp taldea.
Korta tabernan, 20:30ean.

IURRETA Kontzertua
Heitxi eta Alain.
Abadetxean, 21:00etan.

MAÑARIA Ipuinak
Saroa Bikandi ipuin kontalaria.
Errose Bustintza kultur etxean,
17:00etan.

MAÑARIA kontzertua
Rukula.
Errekondo tabernan, 20:00etan.

ZAPATUA 17

ABADIÑO Santrokazak
Txangoa Ganbaru Txirindulari
Elkartearen eskutik, 08:00etan.
Gazte Bazkari herrikoia, 14:00etan,
Ferialeku plazan. Ondoren, Gazte
Eguneko jokoak
Izenbarekuak txaranga, 18:30ean.
Sweet Rage, Estutu eta Hofe,
20:30ean, Txanportan.
Zelaietan.

IURRETA V. Señora Sariketa
Joane Aldalur eta Irati Tolosa, Idoia
Anzorandia eta Zihara Enbeita, Udane
Mugerza eta Maddi Gallastegi, eta
Ainhoa Comas eta Julen Eizagirre
arituko dira 2. kanporaketa den saio
honetan. Jone Lizarralde izango da
gai-jartzailea (*bertsosarrerak.eus*).
Maiatzak 17, Montosten, 17:00etan.

DURANGO Jaialdi Solidarioa
Río de Oro elkartaren jaialdia.
Puzgarriak, 11:00etan.
Paella txapelketa (11:00-15:00).
Saharar dantzak, eta Saharako tea
eta gozokiak (12:00-14:30).
Bazkaria, 15:00etan.
Hamarru elektrotxaranga, 17:00etan.
Bertsio lehiaketa: Zea Mays, Stevie
Wonder, Karol G., Nirvana, Izaro,
Catriel y Paco Amoroso, Barricada,
Esne Beltza, Alanis Morissette eta
Su ta Gar, 20:00etan (Plateruenan).
Landako Gunean, 11:00etan hasita.

ELORRIO Euskal Jaia
Dantzarien kalejira eta saioa.
Betsaide dantza taldeak antolatuta.
Kiroldegitik irtenda, 11:00etan.

IURRETA Bizikleta irteera
Barrerillara irteera. Iurreta
Txirindulari Elkartea.
Iurretan, 08:00etan.

IURRETA Kontzertua
Malatestta.
Korta tabernan, 20:00etan.

MALLABIA Kultur hamabostaldia
7 Pago Mendi Lasterketa, 09:30ean
(sariak, 13:30ean).
Haur parkea (10:30-13:30).
Zutik elektrotxaranga (14:00-16:00).
Garagardo dastatzea probalekuan
(16:00-18:30).
Karropoteoa, 18:30ean.
Plazan, 09:30ean hasita.

MAÑARIA Ekitaldia
'Kantuez, kontuez... urtea bota'.
Angurreta Harrobian, 19:00etan.

OTXANDIO Kultur Aniztasun Jaia
Tea eta arrazismoaren inguruko
gazte eta helduen arteko mahai-



SEÑORA SARIKETA

ingurua, 12:00etan (Bolalekuan).
Munduko jolasak, 12:00etan.
Hainbat jatorritako otxandiarrek
egindako pintxoak, 13:30ean.
Sonakay taldea, 14:30ean.
Plazan.

OTXANDIO Kontzertua
Mario Padillaren omenezko txistu
kontzertua, Andikona plazan.
Aurretik kalejira egingo dute.
Plaza Nagusitik, 19:00etan.

ZORNOTZA Jardunaldia
Euskararen hiztegi etimologikoak.
Euskararen jatorriaren 19. biltzarra.
Zelaieta zentroan (09:45-20:00)

DOMEKA 18

ABADIÑO Santrokazak
Duatloi familiarra, Txanporta
plazatik hasita: 11:00etan (LH 1-5)
eta 12:00etan (LH 6- DBH 4).
Umeentzako jolasak Bizilore elkartearen
eskutik, Ferialekuan (16:00-19:00).
Ihes gela, 16:00etan, eskoletan.
Zelaietan.

DURANGO Antzerkia
'Macho grita' (Alberto San Juan eta
La Banda)
San Agustín kulturgunean, 19:00etan.

IURRETA Bizikleta irteera
Bakiora irteera. Iurreta Txirindulari
Elkartea.
Iurretan, 08:30ean.

MAÑARIA Azoka
Azoka eta VIII. Euskadiko Azpigorri
Txapelketa.
Talo eta artile tailerrak (Alluitz
Natura) 11:00etan (frontoian).
Plazan, 10:00etan.

EGUAZTENA 21

ABADIÑO Ipuinak
Ines Bengoa ipuin kontalaria (4-8 urte).
Errota kultur etxean, 17:00etan.

ABADIÑO Berbaldia
'Maltrato en las personas mayores:
un problema social' (Hizlaria:
Ainhoa Martínez).
Txanporta kultur etxean, 18:00etan.

EGUENA 22

ZORNOTZA Kontzertua
Jerron Blind Boy Paxton.
Zelaietako kontzertu gelan,
20:00etan.

BARIKUA 23

ABADIÑO Santrokazak
San Trokaz txapelketako finalak,
18:00etan, Tornosolo trinketean.
Andoni Ollokiegi, 19:00etan, Txanportan.
'Moko' antzezlan (Gorakada),
22:00etan, probalekuan.
Zelaietan.

ELORRIO Bertso saio musikatua
'Tabuen kutxatik oholtzara': Ane
Labaka, Jone Uria, Oihana Bartra eta
Onintza Enbeita bertsolariekin, eta
Araitx Bizkai eta Gari Otamendi
musikariekin. Amaia Agirre arituko
da gaiak jartzen. Izan Iñurri
elkartearen eskutik.
Arriola antzokian, 19:00etan.

IURRETA Ipuinak
'Bidaia' (Amaia Puin ipuin kontalaria).
Herri bibliotekan, 17:30ean (3-5
urte) eta 18:00etan (6 urtetik gora).

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEAN

Faisaien irla
Domeka 18: 19:00.
Kayara. Inka gerraria
Domeka 18: 17:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Estocolmo 1520. El rey tirano
Barikua 16: 18:00, 20:30.
Zapatua 17: 19:00, 21:30.
Domeka 18: 19:30.
Astelehena 19: 18:00, 20:15.
Martitzena 20: 18:00, 20:15.
Eguaztena 21: 19:00.
Destino final: lazos de sangre
Barikua 16: 18:00, 20:30.
Zapatua 17: 16:45, 19:00, 21:30.
Domeka 18: 17:00, 19:30.
Astelehena 19: 18:00, 20:15.
Martitzena 20: 18:00, 20:15.
Eguaztena 21: 19:00.

Presunción de inocencia
Barikua 16: 18:00, 20:30.
Zapatua 17: 19:00, 21:30.
Domeka 18: 19:30.
Astelehena 19: 18:00, 20:15.
Martitzena 20: 18:00, 20:15.
Eguaztena 21: 19:00.

Aventura en la isla
Zapatua 17: 16:45.
Domeka 18: 17:00.

Kayara. Inka gerraria
Zapatua 17: 17:00.
Domeka 18: 17:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

La historia de Soulymane
Zapatua 17: 20:00.
Domeka 18: 20:00.
Astelehena 19: 20:00.

MALLABIA

KONTZEJUZARRA

MendiTour Dokumentalak:
'Haize Ierreak' (Janire Etxabe)
'Modo Avión' (Garazi Sanchez)
'Zazpi' (Mikel Lizarralde)
Eguena 22: 19:00.

ZALDIBAR

LIBURUTEGI ZAHARRA

Sisters with transistors
Domeka 18: 18:30.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Faisaien irla (JBGA)
Domeka 18: 20:00.
Astelehena 19: 20:15.

Diplodocus
Domeka 18: 17:00.

8
Martitzena 20: 20:15.

IURRETA Tailerra
Serigrafia tailerra (Torontile).
Abadetxean, 18:00etan.

IURRETA Ahozko narrazioa
'Por la ruta de la seda' (Halka
Cuentos Universales).
Herri bibliotekan, 19:00etan.

Eskualdeko mendi proben festa hastear, 7 Pagogaz

MENDI LASTERKETA Mallabiko 7 Pago mendi lasterketaren bigarren aldia zapatu honetan izango da. Urria amaitu bitartean beste zazpi proba egongo dira eskualdeko beste hainbeste herritan. 375 korrikalarigaz, Mallabiko probarako dortsalak agortu egin dira

Joseba Derteano MALLABIA

Durangaldeko mendi lasterketen festa hastear da. Asteburu honetatik urri amaierara, eskualdeak zortzi lasterketa hartuko ditu beste hainbeste herritan. Lehenengo hitzordua Mallabiko 7 Pago mendi lasterketa da, zapatuan.

Aurten bigarren aldia egingo du. Lasterketa bi izango dira: 25 kilometroko luzea eta 16 kilometroko laburragoa. Luzeko ibilbidea iazko bera izango da; Zengotititik haize-errotetaraino igo, Trabakura jaitsi eta handik Oiz tontorrera igoko dira berriro. Ibilbide laburrean aldaketa txiki bat egin dute.

Izen ematea arrakastatsua izan da. Iaz 286 korrikalari batu ziren eta aurten 375 lagunek eman dute izena. Iaztik hona emakumeen parte-hartzea asko hazi da, 57tik 85era.

Antolakuntzarako "boluntario talde zabala" dute eta iazko estreinaldian ikasitakoa bali-



iazko lehen aldiko irudia, helmugan. LUCIA MERUELO

garria izango zaie aurtengo erronkari aurre egiteko, antolakuntzako Xabat Uzuriagaren esanetan. Gainera, aurten martxan ipini den Durangaldeko Koparen barruan egoteak ere laguntzen die boluntarioak zein

anoa gunetako materiala lortzeko.

Parte hartzaileen artean, emakumeetan egongo den maila azpimarratu dute antolatzaileek. Besteak beste, Nora Narbaiza eta Zutoia Odriozola elorriarra

lehiatuko dira. Gizonetan, Irazu Aranburu eta Iñigo Pradera mallabitarrak irteeran egongo dira, iazko irabazlea eta bigarren sailkatua, hurrenez hurren.

Umeei begira

Aurten ahalegin berezia egin dute umeengana eta familien-gana heltzeko. Batetik, arratsalderako umeen lasterketa antolatu dute, Mallabiko eskolako guraso elkarteak kideekin batera. Kilometro inguruko ibilbidea prestatu dute herri-gunean. Txikienean, gurasoek lagunduta gura izanez gero, itzuli bat emango diote ibilbideari, eta nagusienek bi. Antolatzaileek azpimarratu dute zailtasun txikiko ibilbidea dela; zatirik handiena aldats behera da. Opariak egongo dira denentzat.

Bestetik, goizetik eguerdira umeentzako puzgarriak egongo dira parkean, lasterketak martxan diren bitartean umeek jolasteko eta entretenitzeko aukera izan dezaten.

Ekimen gehiago

Lasterketak amaitu eta gero, jai-giroak aurrera jarraituko du. 16:30ean gazta eta garagardo dastatzea hasiko da, udalak antolatuta. Ondoren, Zaparrada elkarteak antolatuta eta Euskaraldiaren barruan, hitanoz poteatzeko aukera egongo da karro poteoan. Poteoko ibilbidea frontoitik hasiko da.

Ekimenez beteriko egitaraua

7 Pago Mendi Lasterketaren harira, egun osoko egitaraua antolatu dute herriko eragileekin batera.

- **09:30** Lasterketa luzea
- **10:00** Lasterketa laburra. Plazan talo eta gozo postuak
- **10:30-13:30** Umeentzako puzgarriak parkean
- **13:30** Sari banaketa
- **14:00-16:00** Zutik elektrotxaranga
- **16:00** Umeen lasterketa
- **16:30-18:30** Gazta eta garagardo dastatzea frontoian
- **18:30** Karro poteoa frontoian hasita

ANBOTO Durangaldeko Koparen babesle

Mallabiko 7 Pago mendi lasterketa Durangaldeko Koparen hasiera ere izango da. ANBOTO Kopako babeslea izango da eta gertuko jarraipena egingo dio.

Durangaldeko Koparen sorburua iazko Urkiola Kopan dago, parke naturaletik igarotzen diren hiru mendi lasterketaren artean sortu zutena. Esperientzia positiboa izan zenez, deialdia eskualdera zabaltu zuten eta lasterketa guztiak batu ziren. Batasunak eskaintzen dizkien antailak azpimarratu zituzten ekimena publikoki aurkeztu zutenean: kanpora begira amu bat da korrikalariak erakartzeko, eta barrura begira antolaketa



Durangaldeko Kopako aurkezpeneko irudia.

errazten die, materiala eta giza baliabideak partekatzeko aukera dutelako.

Kopak sailkapen propioa izango du eta gutxienez lau probatan parte hartu behar da

bertain sartzeko. Lasterketak lehiatu ahala, antolatzaileak sailkapena eguneratzen joango dira www.durangaldekokopa.com atarian. Atariak probei buruzko informazioa ere

Ur-jauzirako eta 7 Pagorako bidea prest

7 Pago lasterketak herriko toki bereziak ezagutaraztea ere badu helburu. Esaterako, Gereak auzoko ur-jauziak; baita ur-jauzietatik aurrera joanda, boluntarioek beren-beregi lasterketarako zabaldu duten bidezidorretik, 'zazpi pago' lez ezagutzen den ingurunea. Toki bietatik igarotzen da lasterketa. Jendearen artean interesa piztu duten tokiak dira, baina batzuei kostatu egiten zaie bertara heltzea, auzoetan eta mendietan barneratu beharra dagoelako. "Baina non daude zehatz-mehatz?", galdetu izan diete batek baino gehiagok antolatzaileei.

Horregaitik, aurten leku bietara joateko bidea markatu dute. Trabakutik aurrera ipini dituzte seinaleak. Trabakuan hasita, kilometro bi pasatzeko bidea dago ur-jauzietara. Antolatzaileek argitu dute "nahiko bide laua" dela.



Gereako ur-jauzien irudia. 7PAGO

Goi mailako ziklistak Durangoko klasikoan

TXIRRINDULARITZA Durango-Durango Emakumeen Laboral Kutxa Sariak munduko txirrindularirik onenetarikoak eskualdeko errepideetan ikusteko aukera eskainiko du maiatzaren 20ko martitzenean. Hainbat talde World Tour mailakoak izango dira



Laboral Kutxa taldeko Ane Santesteban, San Juan Momoitiko aldatsean gora. DURANGUESA

Joseba Derteano DURANGO
Durango-Durango Emakumeen Laboral Kutxa Saria klasikoak munduko txirrindularirik onenetarikoak batuko ditu maiatzaren 20ko martitzenean. Lasterketa 15:00etan hasiko da, Ezkurdin.

Urtero legez, Duranguesa txirrindularitza elkarteak antolatzen duen klasikoak goi mailako taldeak batuko ditu. Aurtengo aldian 23 taldek parte hartuko dute eta euretariko batzuk World Tour mailakoak dira. Emaku-

HELMUGARA HELDU AURRETXOAN, SAN JUANERAKO ALDATS GOGORRAK IGOKO DITUZTE

meen mundu mailako UCI egutegiaren barruko lasterketa da.

Hainbat txirrindulari nabarmendu daiteke lasterketa irabazteko faborioten artean. Hala nola UCI Rankingean seigarren tokian kokatuta dagoen Elisa Balsamo italiarra, edo sailkapen berean 18. tokian dagoen Evita Muzic frantziarra. Biak goi mailako txirrindulariak izateaz gainera, talde indartsuetan dabilta. Muzicen FDF-SUEZ taldea bigarren tokian dago UCI rankingean, eta Balsamoren LIDL-Trek taldea laugarren tokian. Eskualdeko taldeei dagokienez, Abadiño Cycling Academia taldeak sei txirrindularigaz parte hartuko du klasikoan.

Ibilbidea

Klasikoak 113 kilometroko ibilbidea du. Lehenengo zatian Berriz-Elorrio-Atxondo-Abadiño zirkuitua egingo dute. Guztira, lau bider igaroko dira Miota gainetik. Azkeneko 30 kilometroak ikusgarriak izango dira. Lehenengo, Zaldibarretik Areitio igoko dute eta Berrizera jaitsiko dira. Ondoren, Abadiñotik Garaira eta Goiuriara igoko dira. Eta, erremate modura, ziklistek Iurretatik San Juan Momoitioko aldats gogorrei aurre egingo diete. Lasterketako unerik ikusgarrienak igoera honek utzi ohi ditu, % 20ra arteko aldatsak daudelako eta handik zuzenean helmugarantz doazelako.

Amorebietaren urteurrena da gaia 'Zintzilik' lehiaketan

LEHIAKETA SAC Zornozak urdinen mendeurreneko ospakizunagaz bat egin du aurtengo aldian

J.D. ZORNOTZA

Sociedad Deportiva Amorebieta eta bere mendeurrena protagonista izango dira Enrike Renteria pintura lehiaketaren aurtengo aldian. Lehiaketa antolatzen duen Zornoza elkarteak bat egin du urdinen ospakizunagaz, eta 'Zintzilik' modalitateko gaia urteurrena izango da.

Parte hartu gura dutenek Zelaia Zentroko harreran edo 946 300 650 telefonora deituta eman dezakete izena. Artelanak islatzeko lonetak Zelaietan bertan daude eskuragarri.

Lanak entregatzeko epea ekainaren 13ra artekoa da. Parte hartzen duten artistek 20 euroko dieta izango dute.

Uztailaren 6an, lau sari banatuko dituzte Zelaia zentroan egingo duten ekitaldian: lehenengo saria 500 eurokoa da, bigarren saria 300 eurokoa, hirugarren saria 200 eurokoa, eta publikoaren saria 150 eurokoa.



JOKALDIA

ENERITZ ITURRIAGA MAZAGA TXIRRINDULARITZA

% 0,8ko ikusgaitasuna

Orain egun gutxi Laboral Kutxa Team taldeak bere sare sozialetan argitaratu zuen mezu batek barrua eragin zidan. Honela zioen: Emakumezkoen txirrindularitza profesionala % 0,8 baino gutxiago agertzen da hedabideetan. Barrua mugitu zidan, bai, baina ez ninduen harritu. Horixe da gure errealitatea eta egunero pairatzen dugu mundu honetan gabiltzan denok. Txirrindulariek errepidean egiten duten lanak eta kirol honek eskatzen duen sakrifizioak ez dute behar bezalako islarik hedabideetan. Berdintasuna nahi baino urrunago dago oraindik.

Joan zen astean emakumeen La Vuelta lehiatu genuen. Urterik urte gero eta maila handiagoa duen lasterketa da. Taldeen eta txirrindularien lana itzela izan zen, ikuskizuna eskaini zuten, baina seguruena jende askok ez daki lasterketa lehiatu zenik ere. La Vueltako zuzendari Javier Guillenek ere gai hau berbagai izan du: "Lasterketa ikusgarria izan da, baina jarraipen han-

"TXIRRINDULARIEK ERREPIDEAN EGINDAKO LANAK EZ DU BEHAR BEZALAKO ISLARIK HEDABIDEETAN"

"GU BAINO BALIABIDE GEHIAGOKO TALDEEK BABESLEAK LORTZEA KOSTATZEN ZAIELA ESAN DIDATE LA VUELTAN"

diagoa behar du", adierazi du, hausnarketarako beharra plazaratuz.

Guk La Vueltan parte hartu dugu. Egun horietan hainbat taldetako jendearekin berba egiteko aukera izan dut. Gu baino baliabide gehiagoko taldeetako kideek babesleak lortzea kosta egiten zaiela esan didate. Eurei kostatzen bazaie, imajinatu guri, talde gazte bat izanik eta gure helburua gazteei profesional bihurtzeko aukerak eskaintzea izanik. Talderik indartsuenek panorama zaila badute, zer esanik ez harrobian oinarritzen direnek.

Datorren martitzenean Durangoko Klasikoan parte hartuko dugu Eneicat eta Abadiño Cycling Academia taldeekin. Goi mailako txirrindulariek parte hartuko dute, eta, betiko moduan, ahalik eta ikuskizunik onena ematen saiatuko gara. Seguru errepide bazterretan batutako zaleen berotasuna sentituko dugula. Berotasun horrek asko esan gura du guretzat.

GUARDIAKO BOTIKAK

MAIATZAK 16, BARIKUA
09:00-09:00
Etxebarría, Montevideo etorb. 2. - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
MAIATZAK 17, ZAPATUA
09:00-09:00
Bazan, Uribarri 5 - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
MAIATZAK 18, DOMEKA
09:00-09:00
De Diego, Inbaurrondo 22. - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - ZornotzaDomeka, 00 XXX
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
MAIATZAK 19, ASTELEHENA
09:00-09:00
Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
MAIATZAK 20, MARTITZENA
09:00-09:00
Mugica, Andra Maria 9 - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
MAIATZAK 21, EGUAZTENA
09:00-09:00
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
MAIATZAK 22, EGUENA
09:00-09:00
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZORION AGURRAK



Oier Abin
Maiatzaren 3an Zaldibarko **Oier Abinek** 10 urte egin zituen. Zorionak, laztana! Muxu pilo bat gurasoen, Aitzolen eta aitite Valentín eta amama Mari Carmenen partez.



ISIDRA BERNAS ZUMELAGA
Arrazolan 1925ean jaio eta Elorrrion bizi den **Isidra Bernas Zumelagak** 100 urte egin zituen maiatzaren 15ean. Familiaren partez zorionak eta eskerrik asko ama, amama eta birramama ona izateagatik.



Lydia Galvan
Maiatzaren 11n gure bizilagun **Lydia Galvanek** 21 urte egin zituen. Bizitzak irribarre batez har zaitzala.



Garazi
Zorionak, **Garazi!** Jarraitu zaien moduko neska maitagarria eta alaia izeten. Mosu handi bat etxeko guztien partez.



Gari eta Erlea
Zorionak Berrizen bizi dan **Gari Velerdaseri**, bere 5. urtegunean, eta Iruñan bizi dan bere izeko **Erlea Velerdaseri** 44. urtegunean. Mosu bat anaia Lier eta lehengusina Izaroren partez, eta loiba Gari eta Lierren eta alaba Izaroren partez. Eta, batez ere, amamaren eta ama Marbiren partez.



Izei
Izeik 10 urte egin ditu aste honetan. Mutiko handia egin zara honezkero, baina irrifar hori betirako mantendu. Ondo pasa lagunekin eta familiarekin ospakizunetan. Mosu eta besarkada pilo a maite zaitugun danon partez!

GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
661 40 14 00
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaitetz Anbotoren ordezkaritza edo deitu 946 232 523 telefonora.

OROIGARRIA

Joseba Alberdi Lizarazu

Zure irribarrea gure bihotzetan

Kanpin Joaneke lagunak

IBARRETXE KULTUR ETXEAN
ANTZERKIA
BULTZATUZ 2025

Maiatzak 30 - 18:00
ELVI
Nire maletatxoan
Umeentzat

Sarrerak harreran:
SARRERAK
Umeak 1€ / Helduak 3€

Berrizko Agenda Kulturala

Udaberriko tailerrak
Kayara
Falsaien irla
Belharra taldea Andikoan

Maiatzak 16-23
Maiatzak 18, 17:00
Maiatzak 18, 19:00
Maiatzak 30, 19:00

INMOBILIARIAK



F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



GALLANDA Apartamentua. ERDI BERRIA. Garaje handia eta trastelekua.
C.E.E.= E 238.000 €



ABADINO (ZELETABE) 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Garajea eta trastelekua. Etxe osoak kapora ematen du.
C.E.E= E 265.000 €



ABADINO (ZELETABE) 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Garajea eta trastelekua. Etxe osoak kapora ematen du.
C.E.E= E 236.000 €



IURRETA Apartamentua. ERDI BERRIA. Eguzkitsua. Terraza. Ganbara, garaje itxia.
C.E.E. = F 195.000 €




DURANGO 5 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Bizitzen sartzeko moduan.
C.E.E= F 193.000 €



MIKELDI Erdigunean. 3 logela, 2 komun, sukaldea terrazarekin eta egongela. Balkoia.




Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO
Artekalea: Guztiz berriztatua. 2 logela, komuna eta sukaldea. 3. solairua. Igogailurik gabe.
San Inazio auzunea: 3 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela balkoiarekin eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
Arkotxa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea eta 2 komun. Ganbara. Garajea.
Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.
Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.
Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.



BERRIZ
Berriz: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta tra stelekua.




AIXONDO
3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.



LURSAILAK SALGAI
Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.




BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatze. Lursailarekin. Ganbara.
Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.
Markina: Iturreta auzoan. Baserria salgai. Teilatua konponduta. 12.000 m²-ko lur sailarekin.
Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.




BULEGOAK ALOKAIKIRUAN ABADINO
30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.
DURANGO
Ermodo kalean. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.



LOKALAK ALOKAIKIRUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.




LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.
Elorrio: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.



LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI IURRETA
Arriandi industrigunean. 111 m2. Bulegoa eta komuna.
Arriandi industrigunean. 400 m2. Biltegirako proposa.



Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



DURANGO Goienkale: 66,56 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Etxe erdiak kanpora ematen du (mendealdea) Erdigunean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuneak Egoera onean. Ganbara.
C.E.E.E. 160.000 €



DURANGO Artekale: 90 m2. Egongela, sukalde jantzia, 5 logela eta komuna. Egoera onean. Etxebizitza altua. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialdea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuneak. ITE-a pasatutakoa, ez ditu berrikuntzak behar.
C.E.E: F. 195.000 €



DURANGO Muruetatorre: 115 m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Egoera onean baina berrikuntza batzuk behar ditu. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialdea) Leku onean kokatua. Zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. Garajea eta trastelekua ondoan.
C.E.E: BIDEAN. 298.000 €




IURRETA Bixente Kapanaga: 81 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela (logela, jangela eta office bezala banatua) eta komuna (dutxarekin) Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du. Etxebizitza altua eta argitsua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak.
C.E.E: F. 134.000 €




IURRETA Uralde 66 m2. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia. Egoera onean. Argitsua. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Jantzia. ITE-a pasatutakoa. Ez ditu hobekuntzak behar.
C.E.E:BIDEAN. 166.000 €




Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es




BERRIAK DURANGO
Zeharkale kalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.**139.000 € / E.E.Z=E**



DURANGO
Barrenkalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatze. **LEHEN 150.000 € / ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**
Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**
Frantzisko Ibarra: 4 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. **335.000 €/ E.E.Z=E**
Juan de Olazaran: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**




ABADINO
Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**
Eskolako: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **325.000 € / E.E.Z=G**
Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**




AIXONDO
Artekalea, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. **300.000 € .**
BERRIZ
Murgoitio auzoa: Berreraikitze. baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**
Eitua: Berreraikitze. baserria lursailarekin. **350.000 €**



GARAI
Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitze. lursailak. Aukera ezberdinak.




IURRETA
Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **95.000 € / E.E.Z=F**



IZURITZA
Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000 € ORAIN 570.000 € / E.E.Z=E**



GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGON SALGAI
Alluitz: Garaje itxia. **24.000 € .**
Kurutziaga: garajea. **18.000 € .**
Madalenoste: Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 € .**
DURANGON ALOKAGAI
Monago Torre: Garajea. **50 € / hilean.**
Muruetatorre: Garajea. **75 € / hilean.** Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.



LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI/ALOKATZEKO DURANGON SALGAI
Aliendalde auzunea: 200 m2-ko pabilioia. **217.000 € .**
Montorreta kalea: 3 solairuko pabilioia. 1309 m2 inguruko azalerarekin. **728.000 € . / E.E.Z=Salbuetsita.**

LAU-HORTZA



MAITE EUBA

Sarea

Zu zara hor zaudena ni
entzuten barrena askatzeko
premia dudanean,
Zu zara behar dudana ispilua
“txarto zabiltza” murtzikatzen
duzunean,

Zu zara aurrera egiten
laguntzen didan erregaia eta
motorra. “Egin gogor”
“Hemen nago” oihukatzen,
Zu zara nire barre algararen
sugarra,

Zu zara nire negarraren
iturburua,
Zu zara Ni egiten nauzuna,

Ni ere zu bezain entzule
izatea espero dut
dagokidanean,
Nik ere zure ispilua izan
nahiko nuke okertzen
zarenean,

Nik ere zure erregai eta
pizgarri izan gurako nuke
motel zabiltzanean,

Nik ere nahi nuke zure
barrearen erruduna izan,

Nik ere nahi nuke zure
negarra xurgatzen jakin ...

Nor zara zu? Nor naiz ni?
Zu zara ni, ni naiz zu... gu
gara zuek, zuek zarete gu...

zara, zarete,
TALDEA,
KOMUNITATEA,
INGURUA,
EUSKARRIA,
HAZIA,
UZTA,
SAREA.

AKUILUA

"Dominikar Errepublika beti izango da nire etxea"

EIDER LAUZIRIKA NAZIOARTEKO MERKATARITZA AHOLKULARIA

Santo Domingoko (Dominikar Errepublika) finantza barrutian bizi da 2023tik hona. Han etxean lege sentitzen dela dio, eta dominikarrek oraina bizitzen irakatsi diotela

Aitziber Basauri DURANGO

Eider Lauzirika Lopez de Etzezarreta (Durango, 1997) Jaurlaritzak bultzatutako BEINT programaren bitartez joan zen Dominikar Errepublikara. Nazioarteko Harremanen eta Zuzenbide ikasketak amaituta, Madrilén Arazoen Bitartekaritza eta Negozioazio masterra egin zuen Dominikar Errepublikara joan aurretik. Logistikan eta arlo komertzialean lan egiten duen arren, nazioarteko aholkularitzan aritu gura luke.

Lanerako beka bategaz heldu zinen Dominikar Errepublikara. Zerk eragin zuen bertan geratzea?

Dominikarrak oso ondo portatu dira nigaz, hasieratik, eta etxean lege sentiarazi naute. Oso atseginak eta oso zoriontsuak dira. Beste era batera bizi dute bizitza. Askok bizi dute oraina: 'gaur gaurkoa, eta bihar erabakiko dut', esaten dute. Kanean beti dago musika, jendea dantzan... Ia denek dakite saltsa, merenguea, bachata eta dembow-a dantzatzeko. Bizitza ikusteko beste era bat sentitu daiteke une oro. Gauza gutxigaz energia asko du jendeak; eta beti daude pozik. Askok eskertzen da hori. Urte osoan 25-30 graduko tenperatura izateak ere



Eider Lauzirika.

"ORAINA BIZI DUTE ETA HORREK GUZTIZ ALDARAZTEN DIZU BIZITZAGAZKO IKUSPEGIA"

asko laguntzen du, baina beroa jasanezina da abuztuaren.

Bizitzaren beste ikusmolde bat dutela diozu. Zelakoak dira, ba?
Oraina bizi dute, eta horrek guztiz aldarazten dizu bizitzagazko ikuspegia. Oso fededunak

dira. Askok arduratzen dira ea ondo zauden, ea ezer falta duzun, eta duten guztia eskaintzen dizute. Askok partekatzeak dira. Dominikar Errepublika edozer gauzaren gainetik babesten dute, haien DNAREN parte da. Oso umilak dira eta beti dute berba on bat esateko.

Euskal Herria eta Dominikar Errepublika oso desberdinak dira?

Bai. Hasieran, egokitze prozesua ez zen erraza izan. Espainieraz berba egiten dute, baina ez guk uste dugun moduan. Oso bizkor berba egiten dute, ez dute ia ahoskatzen. Ulertzea egin zitzaidan gaxena. Euren argota dute, eta badira berba batzuk guretzat esangura bat dutena eta eurentzat beste bat. Euren kodea edo berba egiteko era ulertuta, oso ondo egokitu naiz.

Ezagutzen zenuen herrialdea?

Ez, baina ia herrialde guztia bisitatu dut, dena dago gertu. Punta Cana leku izugarriak daude. Aurretik, Txilen egonda nago. Banekien Latinoamerika eta Karibea nire tokia direla.

Etortzen zara Durangora? Zeren falta igartzen duzu?

Ez naiz gura nukeen beste joaten. Urtean behin edo birritan ahalgintzen naiz joaten. Familiaren eta lagunaren falta igartzen dut, eta pintxopotearen falta ere bai. Ez dakigu baloratzen zer daukagun urrun dugun arte.

Hor ikusten duzu zure etorkizuna?

Dominikar Errepublikak ezer irakatsi badit, oraina bizitzea izan da. Ez dakit non amaituko dudana, ez dut aterik ixten. Errepublika beti izango da nire etxea, bihotzean eramango dut; bachata, merenguea, saltsa... dantzatuko dut. Egundoko familia egin dut, lagun handiak ditut hemen.

Argia, espazioa eta ikuspegi paregabeak dituzten atikoak.



Azken fasea, lanetan.

**Azken atikoak
SAN ROKE BARRIAN, Durangon.**

2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.
Ikuspegi irekiak eta terraza zabalak.

Etxebizitza pertsonalizagarriak.
Sortu etxe bat zure beharren arabera.

Gune komun pribatuak: gimnasioa, ludoteka eta coworking gunea.

Informazio gehiago:

sukia.com

946 462 041

sukia
Zure etxean zaudete. Estás en tu casa